


MEMORIA



2

0

1

5



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



Agencia Vasca de Protección de Datos – Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3. solairua

01008 VITORIA-GASTEIZ

avpd@avpd.eus

www.avpd.eus

MEMORIA

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urterokoa

L.G. VI 312-2006

Lan hau Creative Commons-da



Aitortu (by)

Aske zara:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- Lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- **Aitortu** - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera emanez haien babesu duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.eu>



AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	7
3.	AHOLKULARITZA EGINKIZUNA.....	9
4.	KONTROL EGINKIZUNA.....	23
5.	EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA	35
6.	PRIBATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA	41
7.	EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	48
8.	BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA	55
9.	BARNE KUDEAKETA.....	57
	DATU PERTSONALAK BABESTEKO ERREGISTROAREN ZIFRAK	66
	AHOLKULARITZA ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO ZIFRAK	80
	AURREKONTU EXEKUZIOARI BURUZKO DATUAK	82





1. AURKEZPENA

2015eko DBEBren jardueri buruzko urteko Memoria hau aurkeztuta, bete egin dugu Eusko Jaurlaritzari ekitaldiko kudeaketaren berri emateko eta informatzeko dugun legezko egin beharra; eta, bide batez, gure eginkizunaren berri eman diegu herritarrei eta euskal administrazio publikoei, pertsonen pribatutasunerako oinarritzko eskubidea babesteko eta defendatzeko zer egiten dugun eta nola lan egiten dugun azalduz.

Aurkeztu dugun memoriak pasa den urtean Agentziak burutu zituen jarduerak biltzen ditu. Memoriak aurreko urteetakoen egitura eta sistematika bera mantendu ditu oro har, modu ordenatuan egin ahal izateko Agentziako arlo bakoitzak burututako jardueren jarraipena; eta Agentziaren kudeaketa lanaren emaitza ere argi ikusten da bertan jasotako taula estatistikoen bidez.

Beste urte betez, zehaztasun osoz eta atalez atal egin nahi dugu DBEBri egin dizkieten kontsulten, salaketen eta babes erreklamazioen gaineko kontakizuna, bai eta horien emaitzena ere, ondorioak jasan dituzten pertsonen benetan baliatu dezaten pribatutasunerako eskubidea.

Datuak Babesteko Erregistroari buruzko datuak ere biltzen ditugu memorian, eta euskal administrazioek DBEBren Erregistroan inskribatuta dituzten fitxategiak kontuan hartuta, zehatz azaltzen dugu zenbat fitxategi sortu, aldatu eta ezabatu dituzten.

Era berean, memorian honakoak jaso ditugu: 2015eko erakundearen jardura islatzen duten datuak eta adierazleak; Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo duten herritarrei eta erakundeei eskainitako arreta, eta arreta eskaintzeko erabilitako kanala; Agentziaren iazko erakunde arteko harremanak; barne kudeaketako datuak, bikaintasunari eta berrikuntzari buruzkoak nahiz pertsonen kudeaketari buruzkoak eta aurrekontu exekuzioari buruzkoak; eta, azkenik, hainbat datu estatistiko.

Memoria hau aurkeztearekin batera hasiko da erakundearen laugarren agintaldia, eta gogotsu hartuko dut ardura hori neure gain, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egungo zuzendaria naizen aldetik. Agintaldi honetan ahalegina egingo dugu ahalik eta modurik eraginkorrean babesteko eta defendatzeko datuak babesteko pertsonen oinarritzko eskubidea; eta horretarako gertutik lan egingo dugu euskal administrazioekin, administrazioek politika publikoak eratzen dituztenean, pertsonen pribatutasunerako eskubidea ere sendotzeko.

Badakit aldaketa sakonen garaian hartu dudala Agentziaren ardura. Batetik, oraintsu onartu dute Datuak Babesteko Europako Erregelamendua, European dauden eskubidearen gaineko araudiak bateratzeko asmoz, eta bermatzeko pertsonen pribatutasunak babestuta jarrai dezan aurrerapen teknologiko azkarren menpe dagoen egungo gizarte globalean.

Bestetik, Gardentasunari buruzko hainbat arau ere onartu dituzte, eta horrek ekarri du nahitaez uztartu behar izatea informazio publikorako eskubidea eta pertsonen pribatutasunerako eskubidea. Hirugarrenik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko arauak ere onartu



dituzte, eta arauok paperezko formatuan egiten ziren datu tratamenduetatik haratago doaz. Bestalde, administrazio elektronikoak eta administrazioen arteko elkarreragingarritasunak, datuak modu masiboan komunikatzea ekarri dute, eta hori arriskutsua denez pribatutasunerako, informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistemak ezarri behar dira administrazio publikoen esparruan.

Beraz, datuak babesteko agintaritzek gai ugari ditugu esku artean, besteak beste, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzea eta horrek pribatutasunean duen eragina; gauzen Internet eta hodei konputazioa; teknologia berrien inpaktua oinarritzko eskubidean; eta Interneteko zerbitzuak eta ahaztua izateko eskubidea, besteak beste. Eta arreta berezia eskaini beharko diete gizarte digital honetan egoera ahulean dauden taldeei, adibidez, pertsona helduei, desgaitasunen bat duten pertsonen eta adingabeei.

Ikuspegia oso korapilatsua bada ere, gogor lan egingo dut erakundea tresna erabilerraza, eraginkorra eta doakoa izan dadin pertsona guztientzat eta baliokoa guztiek pribatutasunerako eskubidea behar bezala balia dezaten. Horretarako ari gara lanean azken hamabi urteotan. DBEB ondo finkatutako erakundea da, Euskadin erreferentea da datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen defentsan, eta oinarri sendoak ditu babes erakundea ere izateko, eta pertsona ororentzat konfiantzazko erakundea izateko, laguntzeko prest dagoena eta gertukoa.

Hauxe da gure lan esparrua, eta hemen egin behar dugu ahalegina. Eta halaxe egingo dut nik ere datozen lau urtetan ilusioz eta konpromisoarekin jardunez, eta zaindu pertsonen pribatutasunerako eskubidea egiazkoa dela.

2016ko apirila

Margarita Uria Etxebarria
DBEBren zuzendaria



2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 14., 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitako Kontseilu Aholku-emailea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu organo bat da, eta zuzendariari aholku ematea du xede.

Honako erakunde hauek ordezkaritza dute Kontseilu Aholku-emailean: Eusko Legebiltzarra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoak, euskal toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN OSAERA

Hona 2015eko abenduaren 31n Kontseilu Aholku-emaileak zituen kideak, 2/2004 Legearen 16. artikuluaaren arabera:

<i>Javier Aguirre Busteros jauna</i>	Lehendakaria. Lurralde historikoen ordezkaria. Arabako Foru Aldundiko Informatika Zerbitzuko burua
<i>Montserrat Auzmendi del Solar andrea</i>	Legelaria, Eusko Legebiltzarraren ordezkaria.
<i>Nieves Martínez De Antoñana andrea</i>	Araubide Juridikoaren zuzendaria. Lehendakaritza Saila
<i>Aintzane Urquijo Sagredo andrea</i>	Santurtziko alkatea. Toki erakundearen arduraduna
<i>Eduardo Jacob Taquet jauna</i>	Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra. Informatika Arloa. Euskal Herriko Unibertsitatea
<i>Iñaki Esparza Leibar jauna</i>	Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Oinarritzko Eskubideen Esparrua. Euskal Herriko Unibertsitatea
<i>Iñaki Pariente de Prada jauna</i>	DBEBren zuzendaria
<i>Joseba Etxebarria Goikoetxea jauna</i>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia.

Kontseiluaren lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorruta.



2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak ohiko bilera bi egin ditu: bata maiatzaren 14an eta bestea azaroaren 30ean.

Bileretan gai hauetaz hitz egin zuten:

Maiatzaren 14ko bilera

- Lehendakaritza berritzea.
- Kontseilu Aholku-emailearen kide bat berritzea: lurralde historikoen ordezkaria.
- X. urteurrena ixteko jardunaldia.
- DBEBren sarien III. edizioa.
- 2014ko Memoria.
- Udako ikastaroak:UPV/EHU.
- 2015ean egindako jardueren txostena.
- 2015 amaitu bitarteko jardueren aurreikuspena.
- DBEBko hainbat plazaren deialdia.
- 2015ean egin beharreko azterlanak.
- 2014 eta 2015eko aurrekontuei buruzko informazioa.
- 2013ko auditoria txostena.


Azaroaren 30eko bilera

- 2015ean egindako jardueren txostena.
- 2015 amaitu bitarteko eta 2016ko lehen seihileko jardueren aurreikuspena.
- Irizpen garrantzitsuenak.
- 2014ko Memoria: aurkezpena Lehendakaritzan eta Legebiltzarreko Batzordean.
- DBEBko hainbat plazaren deialdia.
- Egin beharreko azterlanak.
- 2014ko auditoria txostena.
- 2015 eta 2016ko aurrekontuei buruzko informazioa.



3. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna betetzeko, administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek edo pertsona fisiko nahiz juridikoek Bulegoaren ezarpen esparruan dauden datu pertsonalen tratamenduei buruz egiten dizkieten galderei erantzun behar die.



Kontsultak postaz, posta elektronikoz, faxez, telefonoz eta modu presentzialean egin daitezke; eta oinarritzko eskubidearekin zer ikusi handia dutenak eta pertsonak, administrazio publikoek eta bestelako erakundeek zenbait gairen inguruan Bulegoaren iritzia gainera erantzun formal eskatzen dutenak Bulegoaren irizpen bidez ebazten dira.

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna duenez, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorren proiektuen gaineko txostenak ere egin behar ditu nahitaez; bai eta administrazio publikoen iritzia menpe jartzen diren xedapen orokorren proiektuei, hitzarmenei eta bestelako tresna juridikoei buruzkoak ere. Hori guzti hori egiten du datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokitzen direla ziurtatzeko.

3.1. TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENAKO ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

DBEBk hainbat kanal jarri ditu herritarren eta EAEko administrazio eta erakunde publikoen eskura, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen gaineko informazioa edo aholkularitza eskatzeko. 2015ean Agentziak 700 aholkularitza eskabide inguru jaso zituen telefono bidezko, zuzeneko arreta eta arreta telematiko bidezko kanalen bitartez. Kontsulta gehienak telefono bidez jaso ziren, bigarren tokian posta elektronikoz jasotakoak daude, eta hirugarren tokian bertatik bertara zuzenean egindakoak.

Kanal anitzeko arreta da herritarrek gehien erabiltzen dutena, eta administrazio publikoek ere gero eta gehiago erabiltzen dute. Enpresak eta pribatutasunaren esparruko profesionalek erabiltzen dute gutxien.

Oso ondo baloratutako zerbitzua da, galderak eta zalantzak berehala erantzuteko balio duelako.



Galderetako gaiak ikusita, honakoak dira gehien agertzen direnak: datu lagatzea edo komunikazioa, fitxategien erregistroa, AZETA eskubideak eta bideo-zaintza.

AZETA eskubideen gaineko kontsultak argi uzten dute herritarrek gero eta interes handiagoa dutela Interneten datuak ezabatu ahal izatearen gainean.

Azpimarratzekoa da aurten asko igo direla datu pertsonalak argitaratzearen edo hedatzearen gaineko kontsultak, eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoak ere bai. Hori gertatu da administrazio publikoak oso arduratuta daudelako gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ondo uztartzeko pertsonen pribatutasunerako oinarritzko eskubidearekin; hain zuzen ere, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea ezarri behar dutelako, eta legeak publizitate aktiboaren eta pasiboaren arloko hainbat betebeharrak ezartzen dituelako.

Datu pertsonalak babesteko eskubidea bermatzen duen agintaritza izaki, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak arlo honetan izan duen zeregin behinena izan da administrazio publikoei irizpideak ematea bata bestearekin estu-estu lotuta dauden bi eskubide horiek uztartzeko, horretarako, pertsonak jardura publikoaren berri izateko duten eskubidearen eta pribatutasuna babesteko duten eskubidearen artean beharrezko oreka bilatuz.

Agentzia, eskubideen arteko orekaren alde aritu da lanean urteotan, eta eguneroko lana du ponderatzen eta bateratzen saiatzea pertsonen datu babeserako eskubidea eta babes bera merezi duten beste eskubide batzuk.

Horrez gain, 2015ean beste era askotako kontsultak ere argitu ditugu, biztanleen erroldako datu tratamenduei buruzkoak, segurtasun neurriei buruzkoak eta datuen kalitatearen printzipioari buruzkoak. Gainera, oraindik ardura ematen dute osasun datuen edo kolektibo ahulenen datuen tratamenduek —esate baterako, adingabeak eta genero indarkeriaren biktimak—, eta sare sozialen erabilerak. Kanal hauen bidez, beste esparru batzuetako kontsultak ere ebatzi ditugu: gizarte zerbitzuak, hezkuntza, kontrol politikoa, segurtasun publikoa, tratamendu arduradunaren eta tratamendu-eragilearen figurak, eta hildako pertsonen buruzko eta pertsona juridikoei eta banakako enpresarioei buruzko datu tratamenduak.

Kanal Anitzeko Zerbitzu honetaz gain, Agentziaren web orrian maiz egiten diren galderen eta erantzunen zerrenda bat dugu (FAQ). Datu pertsonalak babesteari buruzkoak dira, eta DBEBri behin eta berriz egiten dizkioten galderari buruzko informazioa eskuratzeko baliogarriak dira.


3.2. IRIZPENAK

DBEBk datu babesari buruz jasotzen dituen galdera konplexuak irizpen bidez ebazten ditu. Agentziak aholkularitza lana eskaintzen du otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 n) artikulua xedatutako aholkularitza eginkizuna betetzeko, eta administrazioei eta pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, baina:



- Kontsultaren gaiak 2/2004 Legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategietan jasotako datu pertsonalen tratamenduei buruzkoa izan behar du.
- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburuaren deskribapena egin beharko dela, eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.

2015ean 33 irizpen egin genituen guztira. Udalek egin zituzten kontsulta gehienak, eta udalen atzetik EAEko administrazio orokorrak. Horiez gain, beste entitate eta erakunde publiko batzuek ere jo zuten Agentziara, eta zenbait herritarrek ere bai, Agentziaren irizpidea eskatzeko datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearekin lotutako hainbat gaitan.



Kontsultak aztertuta, ikusten da asko eta asko direla informazio publikoa eskuratzeari buruzkoak, datu lagatzei buruzkoak (errolda, zerga datuak, osasun datuak) eta datu pertsonalen tratamenduetako kalitatearen printzipioari buruzkoak (proportzionaltasuna).

Aurten azpimarratzekoa izan da pribatutasunarekin eta legebiltzarreko kontrol eginkizuna burutzeko datu pertsonalen tratamenduarekin zer ikusia duten kontsulta asko jaso ditugula. Halakoetan, Agentziak egin dituen irizpenen helburua izan da erabakiak behar bezala hartzeko irizpideak eskaintzea, baina esku hartu gabe legebiltzar erakundeek legez esleituta dituzten eginkizunetan.

Beraz, azpimarratu duguna izan da proportzionaltasun irizpideak ezarri behar direla halakoetan, eta lortu nahi den helbururako behar diren datu pertsonalak baino ez direla bildu behar; DBLOk, bereziki babestutako datuak tratatzeko, pribatutasun handiago eskatzen duela ere gogorarazi dugu, eta kontrol politikorako bildutako informazioa gerora tratatzekotan, datu pertsonalak babesteko araudia bete beharko dela berdin-berdin.

3.2.1. Irizpen garrantzitsuenak

Irizpenak eskuragarri daude Agentziaren web orrian (www.avpd.eus).



- **Ingurumen arloko informazioa atzitzeko eskubidea (CN 14-035)**

Irizpena egiteko eskatu ziguten galdetuz ea interesdunei eta hirugarrenei hainbat eratako dokumentuak laga ahal zaizkien (aktak, salaketak, txostenak eta abar). Berez gaia artxiboak eta erregistroak atzitzeari buruzkoa da; eta kasu bakoitza aztertu beharrean, balorazioa egiteko hainbat irizpide eman genituen, eragile juridikoek kontuan har zitzaten.

- **Doako laguntza juridikoari buruzko espedienteen datu tratamendua (CN14-036)**

Zuzena da, datu babesari dagokionez, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Batzordean zeuden kideak identifikatzea, hala eskatzen badu doako laguntza juridikoaren eskatzaile baten letradu defentsariak.

Auziko beste aldearen letraduak egindako eskaerari buruz, hau da, doako laguntza juridikoaren eskatzailearen eskabide espedienteen dagoen informazio ekonomikoari buruz, esan behar dugu eskabidea jasotzen duen organoak erabaki behar duela, behar bezala arrazoituta ponderatu ondoren, Gardentasunari buruzko Legearen 15.3 artikulua era irizpen honetan adierazitakoa aintzat hartuta.

- **Animalia jabeen datu pertsonalak internet bidez eskuratzea legezkoa den ala ez (CN14-37)**

Internet bidez txakurren erroldan dauden animalia jabeen datuak eskuratzea ez da legezkoa ukituaren adostasunik ez badago edo ez bada egiaztatzen interes legitimoa dagoenik.

- **Alokabideren jarduera eta alokairuko etxebizitzaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren jarduera finkatzea (CN14-038)**

Alokabidek BIZIGUNE programako etxebizitzaren edo bere etxebizitzaren alokairua kudeatzen duenean, fitxategi pribatu baten arduraduna da, eta ez da etxebizitza gaietan eskumena duen sailaren tratamendu-eragilea.

- **Kontratazioko lan poltsetako datuak lagatzea langileen batzorde bati (CN14-039)**

Lan poltsetan dauden pertsonen datuak komunikatzea zilegi izango da bakar-bakarrik datuak lagatzea nahitaezko neurria izateaz gain, datu babeserako eskubidea sakrifikatzea ere onargarria bada proportzionaltasun printzipioari dagokionez, foru aginduak Aldi Baterako Enplegurako Lan Poltsen Jarraipen eta Kontrol Batzordeari aitortzen dizkion betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

Ahalegina egin beharko da ahalik eta gutxien esku hartzeko prozesuak ukitzen dituen pertsonen intimitaterako eta datua babesteko eskubidean. Beraz, aldi baterako lan poltsetan dauden hautagaiei buruzko datuak ez dira argitaratu behar ingurune irekian, beste modu batean baizik, hau da, lan poltsan dauden pertsonen bakarrik ikusteko



moduan argitaratu beharko dira, eta, hartara, DBLOren 4.1 artikuluko xedatzen duen kalitatearen printzipioa bete.

▪ **Erabiltzaile turistikoaren jarraipena egiteko eta kokapena zehazteko gailu mugikorren erabilera (CN14-040)**

Jakin nahi zuten ea datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat datorren geolokalizazio datuak erabiltzea zerbitzu turistikoetako gailuetan. 29. artikuluko Lan Taldearen irizpen bat oinarritzat hartuta, azpimarratu behar da informazio argia eta zorrotza eman behar dela geolokalizazio datuak bildu aurretik, eta aukera hori ezin berez aktibatu gailuan.

▪ **Adingabeko baten errolda espedientearen atzitzea (CN15-001)**

Ama batek seme-alaben errolda espedientearen atzitzeko eskabidea egin zuen. Espedientearen aitaren datuak zeuden eta alta emateko aurkeztu zituen dokumentuak ere bai. Uste dugu amak adingabeko seme-alaben errolda espedientearen eskatu bazuen, seme-alaben izenean eta ordezkaritza egin zuela, eta seme-alabak zaintzeko eta babesteko betebeharra betetzeko ere bai. Beraz, hasiera batean, nahikoa da familia-liburua aurkeztea seme-alaben ordezkaria dela egiaztatzeko. Gurasoak banatuta edo dibortziatuta badaude, guraso ahala aipatzen duen eta seme-alaben zaintza eta babespea esleitzen duen agiri judiziala aurkeztu beharko du, adingabeei buruzko informazioa atzitzeko.

Adingabeen errolda espedientearen aitaren datuak zeuden; baina, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluko legeztatzen duen aitaren datuak lagatzea edo komunikatzea, nahiz eta hark adostasunik ez adierazi.

Eskabidea jasotzen duen organoak hartu beharko du atzipenaren gaineko erabakia, behar bezala arrazoitutako balorazioa egin ostean, Gardentasunari buruzko Legearen 15.3 artikuluko baldintzen arabera eta 19. artikuluko prozedura kontuan hartuta.

▪ **Ukituaren adostasun informatuaren dokumentua, gizarte zerbitzuaren esparruan (CN15-002)**

Ez da interesdunaren adostasunik beharko datuak interesdunak berak emanda jasotzen direnean, interesdunak berak hautatutako administrazioaren eskumeneko zerbitzu bat eskatu nahi duelako.

Baina, datu pertsonalak interesdunaren adostasunik gabe tratatzeko, ez da nahikoa administrazioak eskumena izatea; izan ere beste printzipio batzuk ere bete behar dira, adibidez, datu bilketaren helburuarekiko proportzionala izatea. DBLOk xedatzen duenez, horri "datuen kalitatea" esaten zaio.

Gainera, pertsonak behar adina informazio izan behar du, bere datu pertsonalen tratamenduei buruzko erabakiak hartu ahal izateko. Horiez gain, datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko eskubidearen beste funtsezko printzipioetako bat bete



behar dela ere gogorarazi behar dugu: DBLOren 4.1. artikulua aitortzen duen kalitatearen printzipioa (proportzionaltasuna). Araudiak modu berezian tratatzen ditu datu horiek, eta, beraz, ezin zaie ezarri DBLOren 11.2 a) eta e) artikuluetan aipatzen diren arauak, tratamendua legeztatzen dutenak. Horrek esan nahi du 7. artikulua xedatutakoa bete beharko dela nahitaez. Eta DBLOren 21. artikulua ere ez du balio gaikuntzat, gaikuntza orokorregia delako eta ez duelako berariaz jasotzen bereziki babestutako datuetarako ere balio duela.

Adostasuna eta lege gaikuntza ez dira nahikoa edozein datu lagatze justifikatzeko edo baliozkotzeko; eta, horrez gain, ez dute atzipen orokorrak edo indiskriminatuak egiteko biderik ematen, hau da, ezin dira datu bilketaren oinarrian dagoen helburutik haratago joan. Gauzak horrela, datu tratamenduaren aurretik, interesdunak jakin egin behar du zein datu diren beharrezkoak jasoko duen zerbitzurako, eta zehatz jakin behar du zertarako erabiliko dituzten datuak; eta, hala badagokio, zertarako eta nori lagako dizkioten ere bai. Norberaren datu pertsonalen gaineko boterea izateko eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izateko modu bakarra da hori; eta azken finean, datuak babesteko oinarritzko eskubidearen edukia da.

Kontuan hartzen baditugu baldintza guzti horiek eragin handia dutela adostasunean, horrek esan nahi du adostasunari buruzko dokumentuak ere ondo jaso eta adierazi beharko duela biltzen diren datuak zertarako (helburua) erabiliko dituzten. Helburuak bat etorri behar du dagokion administrazio publikoak gaiarekin lotuta dituen eskumenekin, bat etorritik tratamendu operazio zehatz batekin (interesdunak eskatu duen prestazioa); eta helburuaren definizioak ezingo du izan kontsulta eskabidearekin batera aurkeztu dutena bezain orokorra edo zehaztu gabea ("Zure kasuari buruzko informazioa").

▪ **Atzeritarrei buruzko erroldako datuak lagatzea Guardia Zibilari (CN15-003)**

Udal batek DBEBren irizpena eskatu zuen, udal barruti honetan erroldatuta dauden atzeritarren errolda datuak lagatzeari buruz Guardia Zibilari. Guardia Zibilak, jehadismoaren eta delinkuentzia antolatuen aurka borrokatzeko eskatu zituen.

Datu lagatzeak bete behar badu Konstituzio Auzitegiaren Epaiak eskatzen duen proportzionaltasun irizpidea, nahitaezkoa da udal espedientean behar bezala arrazoituta egotea datu lagatzea, eta datu lagatzearen helmena ere bai, funtsezkoak eta ezinbestekoak direla lortu nahi den helburua lortzeko; eta hori arrazoitzea datuak eskatzen dituenaren ardura da, eta fitxategiaren arduradunaren ardura da, ordea, eskabidea eta jokoan dauden interesak eta eskubideak ponderatzea.

▪ **Ondasun higieziari buruzko zergaren datuak industrialde bat artatzeko hirigintza erakunde bati lagatzea (CN15-004)**

Hirigintzako erakundeak udalari eskatutako datuak zerga izaera duen fitxategi batean jasota daude (ondasun higieziaren gaineko erroldan), eta Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arauak berariaz dio ezin direla zerga fitxategietako datuak laga, datuen titularrak ez badu adostasunik adierazi. Eta ezin dira laga, hain zuzen ere, datu horiek izaera erreserbatua dutelako; hala xedatzen baitute Zergei buruzko



abenduaren 17ko 58/2003 Legeak eta 12/1989 Foru Arauak. Batak zein besteak hainbat kasu tasatu dituzte finkatuta zerga arloko datuak datu horien titularren adostasunik gabe noiz laga daitezkeen zehazteko.

Foru araudiak dioenez, Foru Aldundiari baino ez dagokio lurzoruaren mugaketei eta balioei buruzko ponentziak egitea eta onestea, bai eta mugaketa horiek eta katastroko balioak finkatzea, berrikustea eta aldaraztea eta Zergaren Katastroei eta Erroldari datxekien gainerako eginkizunak eratzea, berrikustea eta horien kontserbazioa ere.

Beraz, hasiera batean, Foru Aldundia da higiezinaren katastroko datuak —eskatu dituzten datuak, hain zuzen ere— lagatzeko eskumena duen organoa. Katastroko datuak atzitzeko aukera duten udalek badute informazioa ematea, baina baldin eta foru aldundiaren baimena badute, eta baimenaren baldintzak bete badituzte. Edozelan ere, informazioa eskuratu ahal izateko ezar daitezkeen mugak foru aldundiari zuzenean eskatuta izango zituzten berak izango dira.

Foru arauak dio katastroko datu babestuek direla Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren titular edo subjektu pasibo gisa katastroan izena emanda agertzen direnen izen-abizenak, sozietatearen izena, identifikazio kodea eta helbidea; eta, beraz, honako hauek baino ezingo dutela atzitu, titularren adostasunik gabe, katastroko informazio babestua: *"d) Organismo, korporazio eta entitate publikoak, beren funtzio publikoak bete ditzaten, haien administrazio nagusiaren bitartez, betiere aurreko a) apartatuan jarritako baldintzak betetzen badira"* (eskumen, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioetatik datozen mugak ezarrita).

Beraz, kontuan hartuta zertarako sortzen diren "artatzeko hirigintza erakundeak" eta doktrina jurisprudenziala ikusita, kontsulta egin digun udaleko industrialdea artatzeko hirigintzako erakundeak eska diezaioke informazioa foru aldundiari, eta bere gainetik duen erakundearen bidez eskatu behar dio. Kasu honetan goitik dagoen erakundea kontsulta egin digun erakundea dela esan daiteke.

Hala eta guztiz ere, argi utzi behar da datu lagatzeak muga bat duela, eta mugak esan nahi du bakar-bakarrik laga beharko direla erakundea osatzen duten jabeen errolda eratzeak behar diren datuak, eta ez direla laga behar erakundeak duen helbururako egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak ez diren datuak.

▪ Unibertsitate bateko kide anitzeko organoen bilerak grabatzea (CN15-005)

Aktak errazago egiteko unibertsitate bateko kide anitzeko organoen bilerak grabatzeko kontuari buruz esan behar dugu organo bakoitzaren autoantolaketa arazo bat dela, eta organo bakoitzak onartu beharko duela, halako erabakiak hartzeko ezarrita duen prozedura erabiliz.

Bestalde, zenbait organoren bilerak grabatzea han hitz egindakoa unibertsitateko kideei helarazteko, hau da, zehatz esanda, Klaustroaren eta Gobernu Kontseiluaren bilerak grabatzeko, esan behar dugu organo bakoitzaren funtzionamendu erregimena aztertu behar dela, eta egiaztatu ea bilerek izaera publikoa duten unibertsitateko kideentzat.



▪ **Lursail jabe batzuen katastroko datuak lagatzea hirugarren batzuei (CN15-006)**

Hasiera batean, Foru Aldundia da higiezinaren katastroko datuak —eskatu dituzten datuak, hain zuzen ere— lagatzeko eskumena duen organoa. Katastroko datuak atzitzeko aukera duten udalek badute informazioa ematea, baina baldin eta foru aldundiaren baimena badute, eta baimenaren baldintzak bete badituzte. Edozelan ere, informazioa eskuratu ahal izateko ezar daitezkeen mugak foru aldundiari zuzenean eskatuta izango zituzten berak izango dira.

Foru arauak xedatzen duenez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren titular edo subjektu pasibo gisa katastroan izena emanda agertzen direnen izen-abizenak, sozietatearen izena, identifikazio kodea eta helbidea katastroko datu babestuak dira. Beraz, Katastroaren datu-basean sartuta dauden ondasun higiezinaren katastroko datu babestuak eta babesik gabekoak jasotzen dituen katastro-egiaztagiria honako hauek baino ezin izango dute jaso: Higiezinaren Zergei uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 21. artikulua aitutzen dituenak.

▪ **Udal batek editatutako liburu bateko argazki bat ezereztekoa (CN15-007)**

Fitxategiaren arduradunak ebatzi behar du argazkia ezerezteko eskabidea, eta ezerezteko eskubidea baliatzeko betekizun guztiak betetzen direla egiaztatu, eta kasuaren inguruabarrak balioztatu beharko ditu. Batez ere, kontuan hartu beharko da irudia ezerezteko eskabidea egin duen pertsonaren bizitza pribatuko argazki bat dela, eta argazkiak ez duela interes historiko edo kultural nabarmenik. Eta ezin da ahaztu, diotenez, ukituaren adostasunik gabe argitaratu dutela.

▪ **Kanpoko prebentzio zerbitzu batek egin beharreko datu tratamendu bat (CN15-008)**

Langile baten datuak lagatzea kontratatutako prebentzio zerbitzuari. Zerbitzuak probaren bat azpikontratatzeko badu, bi aukera ditu: ukituak adostasuna adieraztea ala DBLOren 12. artikuluko tratamendu enkargua formalizatzea.

▪ **Zehapen-espeditante batean alde aurreko jarduerak gehitzea ea datuak babesteari buruzko araudiarekin ondo ezkontzen den (CN15-010)**

Kontsultan eman dizkiguten datuekin ezin dugu aztertu ea ukituei azaldu zieten zertarako erabiliko ziren datuak, eta ea ukituen adostasunarekin egindako elkarrizketak erabili ote zituzten elkarrizketetako datuak eskuratzea justifikatu zuen helburua ez den beste batzuetarako, nahiz eta helburuok legítimoak izan. Espeditanteak nortzuk atzitu zitzaizkien ere ez dakigu; hau da, ez dakigu nortzuk atzitu zitzaizkien laneko eginkizunak burutzeko ala espeditantearen parte zirelako (alde ordezkariek erabili zituztelako: sindikatuak edo letratuak); eta kontsultan aitutzen direnek atzipena modu bidegabean egin ote zuten ere ez dakigu (epaitegiko funtzionarioek, idazkari judizialak eta epaileak, sindikatuak eta alde ordezkariek).



- **Legebiltzarkide bati mediku-parteak lagatzea (CN15-012)**

Datu disoziatuak lagatzea ez dago DBLOren babespean. Pertsonen osasunaren gaineko datu pertsonalen tratamenduak babes erregimen berezia bete behar dute. Edozelan ere, datuen kalitatearen printzipioa bete behar da, eta lortu nahi den helbururako funtsezkoak diren datuak baino ez dira bilduko eta tratatuko.

- **Trafiko istripuetako kaltetuak artatzen dituzten ospitaleei trafiko istripuon ardura izan dutenen datuak lagatzea (CN15-013)**

Arloko araudia aztertu eta gero, hau da, aseguru kontratuari buruzko eta osasun arloari buruzko araudia (Osasunari buruzko Legea) ikusi ondoren, esan behar da badagoela lege gaikuntza udaltzaingoak datuak (argiketak) lagatzeko asistentzia eman duen osasun zentro publikoari.

- **Zibermehatxuak antzemateko eta aurre egiteko segurtasun helburuarekin posta elektronikoa iragazteko gaikuntza (CN15-014)**

Zibermehatxudun posta elektronikoen uholde bat egon zen, eta, ondorioz, sistemaren administratzaileek eta arduradunek jakin nahi zuten ea lege gaikuntzarik zegoen mehatxudun mezuak iragazi eta ezabatzeko, eta ea hori eginez gero, erabiltzaileen pribatutasuna urratzen zen.

Irizpenak ondorioztatzen du zilegi dela posta elektronikoa iragaztea zibermehatxuak antzemateko eta horiei aurre egiteko segurtasun helburuarekin, baina sistemaren segurtasun administratzaileek egiten badute konfidentzialtasun bermeekin; eta, horrek ez badu urratzen enplegatuen pribatutasunerako espektatibarik. Gainera, gardentasunaren printzipioa bete behar da, eta, horretarako, langileei aurretiaz azaldu behar zaie gainbegiratu egingo dituztela; eta, gainbegiratu ostean ere bai, batez ere, enpleguengan eragina duten intzidentzia edo mehatxu bati aurre egin behar izan badiote.

- **Udal erroldatze espedientea eskuratzea (CN15-015)**

Berez guraso banatuek seme-alaba adingabeen errolda espedientea eskuratzeko eskubidea dute, guraso ahala egikaritzeko, eta adingabearen ordezkariak direlako.

- **Erroldako datu batzuk lagatzea mankomunitateko gizarte zerbitzuei (CN15-016)**

Galdetu zuten ea erroldako datu batzuk, hau da, ea banakako eta familiako erroldatze-egiaztagiriak laga ahal zitzaizkien gizarte zerbitzuei.

Badago lege gaikuntza halako datuak lagatzeko datuak eskatzen dituzten administrazioei, baldin eta datuak beharrezkoak badira administrazio horien eskumenak gauzatzeko. Baina, datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubideari dagokionez, ez dago lege gaikuntzarik, eta adostasuna beharko da.



- **Legebiltzarkide batek EAEko esparru publikoko langileek egindako bidaiei buruz egin duen eskabidea (CN15-017)**

Zilegi da Jaurlaritzak legebiltzarkide bati datu pertsonalak dituen informazioa ematea, horretarako nahikoa lege babes ematen dutelako Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. artikulua eta Jaurlaritzari buruzko Legearen 44. artikulua, DBLOren 11.2 a) artikuluekin bat.

Baina, Euskal Autonomia Erkidegoko esparru publiko osoko langile publiko guztien bidaia gastuen eskaera masibo eta indiskriminatuak ez du proportzionaltasun irizpidea betetzen.

Horren aurrean, aukera bat izan daiteke informazioa disoziatuta bidaltzea, baldin eta balio badu legebiltzarkideak lor dezan kontrol eginkizuna burutzea, eta baldin eta aukera ematen badio, hala badagokio, langile publiko jakin batzuen bidaiei buruzko informazio indibidualizatua eskatzeko, beti ere informazioa ezinbestekoa bada kontrol publikoa burutzeko.

Datu pertsonalen tratamenduak Legebiltzarraren kontrol eginkizuna ez den beste helburu baterako erabiltzeko, datuen titularren adostasuna beharko da edo lege mailako arau baten baimena.

- **Errentatzaileek eta elkarbizitza unitateko pertsonak diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko espedienteak atzitzea (CN15-018)**

Errentatzaileak eskubidea du atzitzeko errentamendu kontratua jasotzen duen espedientea, ustez bere sinadura faltsutu dutelako. Bizikidetza unitateko kideek ere eskubidea dute laguntzak jasotzeko prozeduretako informazioa eskuratzeko, onuradunak direlako.

- **Udal erroldako bajak ediktu bidez argitaratzea, jakinarazpen ondorioetarako (CN15-019)**

Zilegi da udal erroldako bajak ediktu bidez argitaratzea, hala dagoelako jasota 30/1992 Legearen 59.5 artikuluan. Baina, denborak igaro ahala tratamenduak zilegitasuna galtzen du, eta, beraz, argitalpenak helburua bete ondoren, blokeatu egin beharko da eta saiatu bilaketa motor generalistek ez dezaten indexatu.

- **Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako probei buruz legebiltzarkide batek egindako galdera ea datu babesaren araudiarekin bat datorren (CN15-020)**

Pertsona fisikoak baino ez dira datu pertsonalak babesteko eskubidearen titularrak.

Hezkuntza administrazioak, diagnosi-ebaluazioaren probetan parte hartzeko aukeratutako ikastetxe publikoen eta pribatuen izenak eta prozesuan parte hartu zuten ikastetxeenak, eta proba egiteari uko egin zieten izenak ez dira datu pertsonalak; eta, ondorioz, DBLOk ez du babesten datu horiek lagatzea. Beraz, ikastetxeen izenak ematea ukatzeko arrazoia ezin da izan inondik inora datu pertsonalen babesa.



Aurreko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren abenduaren 2ko Agindua ere ezin da izan legebiltzarkideak eskatu duen informazioa ukatzeko arrazoiak, baldin eta ikastetxeen izenak ez badatoz ikasleen izenei eta emaitzei lotuta, ezinezkoa delako ikastetxeen arteko sailkapenak egitea. Eta sailkapenik ez egitea da, hain zuzen ere, Aginduak lortu nahi duena konfidentzialtasun neurria ezarrita.

▪ **Udal igerilekuetan sartzeko abonu-kuotak izapidetzeko eskatzen den dokumentazioa (CN15-023)**

Udalak arautzen ditu polikiroldegietako erabiltzaileen kuotetan hobariak egiteko baldintzak. Horretarako, informazioa eskatu behar du; baina, ezin du eskatu ordenantzetan jasota ez dagoen informazioa.

▪ **Erakunde autonomo bateko langileen datuak lagatzea langileen ordezkariari (CN15-024)**

Kasu honetan honako bi oinarritzko eskubideren arteko talka planteatu zen: batetik, datu pertsonalak babesteko eskubidea (Konstituzioaren 18.4 artikulutik dator), eta, bestetik, sindikatu askatasunerako eskubidea (Konstituzioaren 28.1 artikulua oinarritzko eskubidetzat jotzen du). Jokoan dauden interesak aztertu eta gero, uste dugu langileen ordezkariak eskatu zituzten datuak komunikatzea ondo ezkontzen dela datuak babesteko araudiarekin, baldin eta informazio hori jakitea beharrezkoa bada egiaztatzeko erakunde autonomoan lanpostuak behar bezala hornituta daudela, eta informazio horren faltan, ekintza sindikala ezin bada eraginkorra izan.

Hala ere, ezin izango da eman babes berezia duten (genero indarkeria edo mehatxua) pertsonen buruzko informaziorik, baldin eta betetzen duten lanpostuari buruzko informazioa emanda, haien egoera okertu badaiteke.

Esan behar dugu datu horiek lagatzen badira, datuen eskatzaileei berariaz adierazi beharko zaie datu horiekin gerora egiten dituzten datu tratamenduetan datu pertsonalak babesteko araudia bete beharko dutela.

▪ **Bideo-zaintzako kamerak jartzea, segurtasuneko eta laneko kontroleko helburuarekin (CN15-026)**

Zilegi da bideo-zaintza sistemak erabiltzea lan jarduera kontrolatzeko eta kontratua ez betetzeagatik diziplina zehapenak ezartzeko, Langileen Estatutuaren 20.3 artikulua enpresariei aitortzen dizkien ahalen artean dagoelako, baina baldin eta sistemak ez badira jartzen intimitatea kaltetu daitekeen tokietan. Edozelan ere, alde aurretik azaldu egin behar zaie langileei eta langileen ordezkariari gailuak laneko kontrolerako erabili ahal izango direla. Hala egin ezean, pertsona horien oinarritzko eskubidea urratu egin delako.

Neurriak Konstituzioaren 18.4 artikulua aldarrikatutako pertsonen pribatutasunerako oinarritzko eskubidea errespetatu behar badu, proportzionaltasun irizpideak bete beharko ditu, eta arrazoi objektiboetan eta ondo justifikatuetan oinarrituta egon beharko du.



- **Zigor aurrekariei buruzko erregistro nagusiak egindako ziurtagiriak, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko (CN15-027)**

Herritarrek Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusiari eskatzen badiote adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikulua agintzen duen ziurtagiria, Erregistroak ziurtagiri negatiboa egin beharko du, eta esan beharko du sekula ez dela kondenatua izan sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik. Helburu horretarako 26/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorraren babespean emandako beste edozein informazio gehiegizko informazioa da eta datu babesaren esparruko araudiaren kontrakoa da.

- **Hilobi-eskubideen administrazio-emakidei buruzko informazioa lagatzea (CN15-029)**

Herritar batek eskatu zuen hilobi-eskubideen administrazio-emakida baten titulartasunari buruzko informazioa. Informazioa udal erregistroan dago. Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 37. artikulua xedatzen du halako informazioa nola eskuratu behar den; bai eta Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 12. artikulua eta hurrengoek ere. Kontuan hartuta eskatu dituzten datuek ez diotela kalterik egiten titularren intimitateari, eskatu dituzten datu pertsonalak lagatzea zilegi dela DBLOren eta 19/2013 Legearen arabera, Agentziak babestu beharreko beste interesen bat egon ezean behintzat.

3.3. TXOSTENAK

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoei buruzko derrigorrezko txostenak, 17.1.h) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko proiektuen gaineko txostenak, 2/2004 Legearen 17. 1.l) artikulua eta DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.
- Bestelako lege-xedapenei eta hitzarmenei buruzko txostenak, ebazteko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.

2015ean 14 legezketasun txosten egin ziren. Lau lege aurreproiektu, 3 dekretu-proiektu eta lankidetza hitzarmen informatu ziren. Aurreko ekitaldian baino % 16 gehiago.

Hona informatu ditugun proiektuen zerrenda:

- IL14-009 EAEn Oinarrizko Lanbide Heziketaren Antolamendu Orokorra ezartzen duen Dekretu-proiektua.



- IL15-001 Kiroleko dopinaren aurkako legea aldatzeko lege aurreproiektua.
- IL15-002 EAEn biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko eta jarduteko baldintzak ezartzen dituen dekretu-aurreproiektua.
- IL15-003 Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko legearen araudia onartzeko dekretu-proiektua.
- IL15-004 Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobideko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen agindua bigarrenez aldatzeko agindua.
- IL15-005 Urteko Estatistika Programaren dekretu-proiektua 2015.
- IL15-006 Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren datu pertsonalen fitxategi jakin batzuk sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko agindu proiektua.
- IL15-007 Informazioa trukatzeko, EAEko administrazio publikoen eta foru aldundien arteko lankidetza hitzarmena.
- IL15-008 Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko legearen aurreproiektua.
- IL15-009 Euskal Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko lege aurreproiektua.
- IL15-010 Ura-Uraren Euskal Agentziaren fitxategiak arautzeko xedapen proiektua.
- IL15-011 DBEBren eta CEPAIP-Zacatecaseko Informazio Publikoa Atzitzeko Estatu Batzordearen arteko lankidetza hitzarmena.
- IL15-012 EAEko laguntzen eta diru-laguntzen erregimena arautzen duen lege aurreproiektua.
- IL15-013 Lehendakartzako eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Lehendakariaren dekretu-proiektua.

Informatutako proiektu guztien artean garrantzitsuena da Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Legea. Egun izapidetzen ari dira Eusko Legebiltzarrean.

DBEBren txosten honek azpimarratu nahi izan du datu babesa gardentasunaren muga bat dela eta ez traba; eta bi eskubideak batera ibili behar direla, eraiki nahi dugun gizartean parte hartzea eta pertsonen eskubideak bermatzea funtsezkoa izatea nahi badugu. Horrez gain, txostenak berretsi egiten du DBEB, erakunde independentea izanik, egoera ezin hobean dagoela bere gain hartzeko eta ebazteko informazio publikoa eskuratzeko eskabideak, eskabideen ondorioz, datuak babesteko oinarritzko eskubidea kaltetu egingo dela ikusiz gero; horrela, bi eskubideen arteko oreka sendotu egingo litzatekeela eta irizpide kontrajarriak saihestu.

3.4. AHOLKULARITZA BILERAK

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak duen izaera proaktiboa eta zerbitzu publikoa izateko asmoa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia



Erkidegoko zenbait administrazio eta erakunderekin, eta aholkularitza eman diegu, esate baterako, obligazio formalak betetzeari buruz eta administrazio horien eskumen esparruan burutu behar dituzten jarduerari buruz.

Horrekin lotuta, 2015ean Agentziako Lege Aholkularitzak honako bilerak egin ditu:

- Bilera bat Enplegu eta Politika Sozialen Sailarekin, gizarte gaietako espedienteetako datuak ezerezteari buruz.
- Bilera bat Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariarekin, datu pertsonalen argitalpenari buruz aldizkari ofizialetan: ezerezte, aurka egitea eta ahaztua izateko eskubidea.
- Bilera bat BiscayTIK fundazioarekin, udaletako hirugarrenen erregistroaren fitxategiei buruz.
- Bilera bat Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarekin, administrazio publikoek izapidetzen dituzten prozeduretan euskararen erabilerari buruz.

Azpimarratu nahi dugu Agentziak egiten duen aholkularitza lana ez dela egiten bakarrik administrazio bakoitzak dituen kezkak argitzeko, datu babesaren kultura zabaltzeko eta hedatzeko konpromisoa betetzeko baizik.



4. KONTROL EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol eginkizuna burutzeko, datuak babesteko araudia bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio publikoek behar bezala ezartzen dutela ere kontrolatzen du; eta, hala badagokio, administrazio horien arau-hausteak deklaratzeko, eta isunak ezartzen dizkie administrazio horien kontura tratamendu arduradunaren eginkizunak burutzen dituzten enpresa pribatuei.

Horretaz gain, herritarrek aurkezten dituzten atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak (“AZETA eskubideak” izenez ere ezagunak) babesteko erreklamazioak ebazten ditu.

4.1. ESKUBIDEEN BABESA

Eskubideak babesteko prozedura Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusita dago, eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 11. artikuluan dago garatuta. Bertan esaten denez, DBEBri babes eskea egin ahal izateko, lehendabizi AZETA eskubidea erabili behar izan du babes-eskatzaileak dagokion administrazioan, eta administrazioak osorik edo zati batean ez erantzun eskaerari.


2015ean lehenengo tokia izan dute ezerezte eskubidearen gaineko erreklamazioek, eta bigarrena atzipen eskubidearen gainekoak.

Zifra horiek erakusten dute iazko memorian adierazitako joera mantendu dela, eta herritarrek duten kezka handi bat dela jakitea ea euren zein datu tratatzen dituzten, eta batez ere datuak ez daitezela etengabe Interneten hedatu. Beste urte betez hasi egin dira Interneten norberaren datuak ezerezteko eskabideak, hau da, ahaztua izateko eskubideari buruzkoak. Horren atzean dagoen arrazoia da 2014ko maiatzaren 13ko Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaia, onartu egin zuelako —datuak babesteko zuzentarauak eskatzen dituen betekizunak aintzat hartuta— pertsonak eskubidea dutela Interneteko bilatzaileei eskatzeko pertsonen izenekin egiten diren bilaketan emaitzetan ez agertzea datu pertsonaletarako loturak.

2015ea guztira 16 erreklamazio ebatzi dira, eta horietatik % 62 onartu egin dira.

Onartu diren erreklamazio gehienak alde formala ez betetzeagatik izan dira, tratamenduaren arduradunek epez kanpo erantzun dietelako eskabideei.

Zenbait babes eskabide ez dira onartu. Batzuk ez dira onartu eskatzaileek ez dutelako alde





aurretik eskubidea baliatu dagokion administrazioaren aurrean, eta beste batzuk AEPDren eskumenekoak izateagatik.

Hona 2015ean ebatzitako babes eskeak:

▪ **Historia klinikoa atzitzea (ET14-010)**

Erreklamazio-egileak berak ordezkatzeko zuen pertsonaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea baliatu zuen.

Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, atzipen eskubideari epe kanpo erantzuteagatik.

▪ **Datuak ezerezte EHAAn (ET14-012)**

Erreklamazio egileak eskatu zuen EHAAn argitaratutako bere datu pertsonalak ezerezteko, datuok ez zirelako beharrezkoak.

Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, atzipen eskubideari epe kanpo erantzuteagatik.

▪ **Aurrekari polizialak atzitzea (ET14-013)**

Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, atzipen eskubideari epe kanpo erantzuteagatik.

▪ **Adopzio espediente bat ezerezte (ET14-014)**

Erreklamazio egileek eskatu zuten espedientea eta euren datu pertsonalak ezerezteko, nazioarteko prozedura bertan behera utzi zutelako.

Erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, eskubidea epe kanpo ebatzi zelako, baina eskabidearen edukia ezetsi egin zen, ez zelako igaro datuak ezerezteko eskatzeko legez finkatutako epea.

▪ **Datuak ezerezte GOOGLEn (ET14-015)**

Erreklamazioa ez zen onartu, AEPDren eskumenekoa zelako.

▪ **Aurrekari polizialak ezerezte (ET14-016)**

Fitxategiaren titularrak aurrekari polizialak ezereztu zituen, DBEBren babes erreklamazioa eta gero.

Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, atzipen eskubideari epe kanpo erantzuteagatik.



▪ **ADN datuak ezerezteak (ET15-001)**

Erreklamazio egileak Segurtasun Sailaren fitxategietan dauden ADN datuak ezerezteko eskatu zuen. Administrazioak eskabidea ezetsi egin zuen, artean oraindik igaro gabe zegoelako epai irmo batetik eratorritako aurrekari penalak ezerezteko epea.

Babes erreklamazioa ezetsi egin zen.

▪ **Interneten argitaratutako zenbait datu ezerezteak (ET15-002)**

Babes erreklamazio bat aurkeztu zuten DBEBn, udalak ez zuelako aintzat hartu udalaren web orrian argitaratutako datu pertsonalak ezerezteko eskubidea. Udalak datuak ezereztu zituen, eskubideak babesteko prozeduran zehar.

Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, atzipen eskubideari epea kanpo erantzuteagatik.

▪ **Interneten argitaratutako datuak ezerezteak (ET15-003)**

Babes erreklamazio bat aurkeztu zuten DBEBn, Interneten argitaratutako hainbat datu ezerezteko eskabidea ez ziotelako aintzat hartu.

Eskabidea ez zen onartu eta AEPDra bidali zen, AEPDren eskumenekoa zelako.

▪ **Hauteskunde erroldako datu pertsonalei aurka egitea (ET15-004)**

Erreklamazio bat aurkeztu zuten DBEBn, ez zutelako aintzat hartu euskal administrazioan hauteskunde sindikalak egiteko hauteskunde erroldan argitaratutako zenbait daturen tratamenduari uko egiteko.

Erreklamazioa ez zen onartu, lehenengo tratamenduaren arduradunari aurkeztu behar ziolako eta ez zuelako aurkeztu.

▪ **Hainbat datu ezerezteak EHAA (ET15-005)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren babesa eskatu zuten, erreklamazio egilearen datuak ezerezteko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaritik.

Datuak ziren duela bederatzi urte baino lehenago estatuko administrazioak emandako administrazio egintza baten jakinarazpen iragarki batekoak. Argitalpenaren helburua zen administrazio egintza eraginkorra izatea, eta helburua beteta zegoenez eta informazio pertsonal hori modu indiskriminatuan eta iraunkorrean zabaltzeak ez zuenez interes publikorik, DBEBk ebatzi zuen eskubideak babesteko erreklamazioa onartzea, eta eskatu zion EHAAri neurriak hartzeko Interneteko bilatzaileek ez zituzten indexatu EHAA argitaratuta zeuden erreklamazio egilearen datuak.



- **Espediente bateko zenbait datu atzitzea (ET15-006)**

Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko, atzipen eskubideari epez kanpo erantzuteagatik.

- **Historia kliniko bat atzitzea (ET15-007)**

Erreklamazio egileak historia klinikoa atzitzeko eskubidea baliatu zuen, eta eskatu zuen esateko zenbat atzipen izan zituen historiak 2014ko ekainetik 2015eko uztailera bitartean, susmoa zuelako atzipen bidegabeak egin zituztela.

Erreklamazioa jaso zuen erakundeak eskabidea ebatzi zuen, eta eskatutako informazioa eman zion eskatzaileari, Agentzia babes eskabidea izapidetzen ari zen bitartean, hau da, epez kanpo.

Babes erreklamazioa onartu egin zen, arrazoi formalak tarteko.

- **Erreklamazio egilearen eta adingabeko semearen historia klinikoetan dauden datuak zuzentzea, ezerezte eta datu horien tratamenduari aurka egitea (ET15-008)**

Zati batean onartu zen erreklamazio egilearen historia klinikoan zeuden datuak ezerezteko eskubidea, ez zelako egiaztatu datu horiek mantentzea beharrezkoa zenik.

Ez zen onartu, ordea, erreklamazio egileak egin zuen eskabidea bere historia kliniko osoari aurka egiteko, ez zegoelako bere egoera pertsonalari buruzko arrazoi legitimorik eta arrazoiturik, erabateko aurka egitea arrazoitzen zuenik.

Ezetsi egin zen seme adingabearen historia klinikoko datuak ezerezteko eskabidea, Agentzian eskabidea egin aurretik onartuta zegoelako ezerezte, eta eretzea egiteko legezko epearen barruan.

- **Abokatuen Elkargoan dauden zenbait datu atzitzea (ET15-011)**

Pertsona batek babes erreklamazio bat aurkeztu zuen DBEBn, elkargo profesional batean zeuden bere datu pertsonal guztiak atzitzeko eskabidea ez zutelako aintzat hartu.

Erreklamazioa ez zen onartu, ez zelako lehenago elkargoan bertan aurkeztu.

- **Aurrekari polizialak atzitzea (ET15-012)**

Erreklamazio egileak udaltzaingoaren fitxategietan zeuden bere datu pertsonal guztiak atzitzeko eskubidea baliatu zuen.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak onartu egin zuen erreklamazioa, eta udalari eskatu zion datuak atzitzeko eskubidea betetzeko.



4.2. AURRETIAZKO JARDUKETAK

Administrazio publiko bati arau-hauste prozedura bat hasi aurretik, DBEBk aurretiazko jarduketa batzuk burutu ditzake, aztertzeko ea gertatutakoa prozedura hasteko modukoa den.

Agentziak ofizioz burutzen ditu aurretiazko jarduerak, berak bere kabuz erabakita ala salaketa bat jaso duelako.

2015ean DBEBk lau aurretiazko jarduketa ireki zituen bere kabuz, eta gainontzekoak salaketen ondorioz hasi zituen.

2015ean ebatzitako aurretiazko jarduketak:

- **Historia kliniko bateko datuak erakunde pribatu bati lagatzea (AP14-004)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gizarte komunikabide baten bidez jakin zuen itxuraz osasun datu batzuk laga zizkiotela, titularren adostasunik gabe, erakunde pribatu bati. Informazio-eginbideak izapidetu ostean, itxi egin ziren aurretiazko jarduketak, arau-hauste prozedura bat hasteko behar beste zantzurik ez zegoelako.

- **Hondakinak biltzeko zenbait gunetan bideo kamerak jartzea (AP15-001)**

Gertakari berberengatik geroago aurkeztutako salaketa batean jaso zen.

- **Bideo kamera batzuk emakumeen aldagela batean (AP15-004)**

Aurretiazko jarduketak ireki ziren, prentsa idatzian agertu zelako udal kiroldegi bateko emakumeen aldagelan zenbait bideo kamera jarri zituztela ezkutuan. Zigor arloko auzia zenez, jarduketak artxibatu egin ziren.

4.3. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo erakunde publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

2015ean 26 salaketa berri jaso genituen DBEBn, eta 37 ebatzi dira guztira. Beraz, salaketa kopurua jaitsi egin da aurreko urtean aurkeztutakoekin alderatuta.

lkerketa jardueren ostean, salaketa asko artxibatu egin ziren (18); beste batzuk ez ziren onartu, eta batzuk Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali ziren, bere eskumenekoak zirelako. Gainontzekoek, administrazio publikoei arau-hauste prozedurak hastea ekarri dute.



4.3.1. Artxibatutako salaketak

▪ Desgaitasun datuak lagatzea (DN14-011)

Unibertsitatea salatu zen, desgaitasun datu bat laga ziolako udaleko kirol institutuari. Datu laga zen urteko abonuan deskontu bat egiteko. Ukituak adostasuna adierazi zuen datu hori tratatzeko; beraz, salaketa artxibatu egin zen.

▪ Historia klinikoa bidegabe atzitzea (DN14-019)

Salatu zuten osasun arloko hainbat langilek historia klinikoa batean baimenik gabeko atzipenak egin zituztela hainbatetan.

Salaketa artxibatu egin zen, atzipen horietako batzuk salatzaileak berak eta bere familia-medikuak egin zituztelako, eta gainontzeko atzipenak arau-haustea ekartzeko moduko ekintzak izan zitezkeen arren, preskribatuta zeudelako.

▪ Datuak aldatzea titularraren adostasunik gabe (DN14-022)

Salatu zuten ura hornitzeko kontratu bateko datuak aldatu zituztela titularraren adostasunik gabe. Hori egin izana arau-hauste larria izan zitekeen arren, adostasunaren printzipioa urratzeagatik, urraketa egin zenetik denbora luze igaro zenez, salaketa artxibatu egin zen.

▪ Berariazko botiken preskripzioa aldatzea eta generikoak jartzea (DN14-027)

Salaketa hau jarri zuten ustez datu pertsonalak babesteko araudia urratu zutelako osasun sistema publikoan, tratamendu kroniko batzuen kasuan marka komertziala aldatu eta printzipio aktiboa jartzeagatik.

Baina, modu automatikoan ordezkatu ziren, eta inor ez zen sartu ukituen historia klinikotetan.

Salaketa artxibatu egin zen, ordezkatzeko neurriak gauzatzeko egin ziren datu tratamenduetarako lege gaikuntza zegoelako, nahiz eta ukitutako pazienteen adostasunik gabe egin: Sendagaien eta produktu sanitarioen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko uztailaren 26ko 29/2006 Legearen 85. artikulua.

▪ Bideo-zaintza kamerak bidegabe erabiltzea eta atzitzea (DN14-030)

Salatu zuten segurtasun kamera batzuk erabiltzen ari zirela laneko kontrolerako, eta kameren mantentze lanez arduratzen ziren teknikariek barik beste pertsona batzuk atzitu zituztela irudiak.

Agentziak ebatzi zuen salatzailearen (segurtasun enpresako langilea) eta salatutako administrazioaren artean ez zegoela lan harremanik, eta irudiak atzitzea zilegi zela. Beraz, salaketa artxibatzea ebatzi zen.



- **Datuak lagatzea adostasunik gabe (DN14-032)**

Salaketa bat aurkeztu zuten hirugarren bati interesdunaren datuak (izena eta abizenak) jakinarazteagatik adostasunik gabe. Salaketa artxibatu egin zen, frogarik ez zegoelako.

- **Zenbait zerga datu lagatzea hirugarren batzuei (DN14-034)**

Salatu zuten foru ogasunak salatzaileen hainbat zerga datu laga zizkiela hirugarren batzuei, salatzaileei buruzko informazioa jakinarazi ziotelako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren agiria aurkeztu zuenari.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga arautzen duen foru arauaren testu bateginak dio agiria aurkezten duen pertsona izango dela zerga ordaindu behar dutenen mandataria, eta ordezkari izaera esleitzen dio aurkeztu duen agiriari lotutako jakinarazpenei dagokienez. Lege arau horrek ematen du lege gaikuntza ukituaren adostasunik gabe datuak laga ahal izateko; eta, beraz, salaketa artxibatu egin zen.

- **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (DN14-038)**

Salaketa bat aurkeztu zuten, baimenik ez zuen pertsona batek ukituaren historia klinikoa atzitu zuelako. Gauzatutako jarduketan ondorioa izan zen ez zegoela zantzurik frogatzeko baten batek bidegabe atzitu zuenik salatzailearen historia klinikoa, egiaztatu zen atzipen bakarra familia-medikuak egindakoa zelako, eta berak hala onartua.

- **Bideo-zaintza kamerak bidegabe erabiltzea eta atzitzea (DN14-040)**

Salatu zuten segurtasun kamera batzuk erabiltzen ari zirela laneko kontrolerako, eta kameran mantentze lanez arduratzen ziren teknikariek barik beste pertsona batzuk atzitu zituztela irudiak.

Agentziak ebatzi zuen salatzailearen (segurtasun enpresako langilea) eta salatutako administrazioaren artean ez zegoela lan harremanik, eta irudiak atzitzea zilegi zela. Beraz, salaketa artxibatzea ebatzi zen.

- **Historia kliniko bat atzitzea eta erabiltzea (DN14-041)**

Salatu zuten Euskal Osasun Zerbitzuko langile batzuek paziente baten historia klinikoa atzitu zutela modu irregularrean eta arrazoitu gabe, eta gerora horko informazioa erabili zutela prozedura judizial batean salatzailearen aurka.

Prozeduran zehar egiaztatu zen adingabe baten osotasun fisikoa eta psikikoa babesteko egin zituztela. Adingabea salatzailearen alaba zen. Beraz, datu tratamenduek ez zuten aitzakiarik datu pertsonalak babestearen ikuspuntutik, azken finean, oinarritzko eskubide bat beste interes handiago baten menpe jarri zelako, hau da, adingabe baten babesa. Hori dela eta, salaketa artxibatu egin zen.



▪ **Zenbait ADN datu tratatzea adostasunik gabe (DN15-001)**

Salatzailearen adostasunik gabe zenbait ADN datu bildu, biltegitatu eta tratatu zituztela salatu zuten, eta gainera, alde zuzeneko informazioa eman gabe.

Espedientean argi geratu zen agiri bat zegoela frogatzen zuena salatzaileak alde zuzenetik informazioa jaso zuela eta adostasuna adierazi zuela idatzia sinatuz. Beraz, salaketa artxibatu egin zen.

▪ **Ikastetxe batek bidalitako gutuna zabalik ematea (DN15-002)**

Salatu zuten hezkuntza administrazioak interesdunari bere izenean bidalitako gutun bat irekita eman ziotela.

Salaketa artxibatu egin zen, egindakoak komunikazioen sekreturako eskubidearekin zer ikusia zuelako (Konstituzioaren 18.3 artikulua) eta hori babestea ez delako Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zeregina.

▪ **Zerbitzu eginkizun bati buruzko informazioa argitaratzea (DN15-003)**

Salatu zuten foru aldundi bateko intranetean hainbat datu argitaratu zituztela, langile publikoez hornitzeko prozedura bat zela eta. Salaketa artxibatu egin zen, isilbidezko adostasuna zegoelako, ez zelako inpugnatu deialdia eta deialdiak argitaratu egingo zela zioelako.

▪ **Zenbait osasun datu lagatzea adostasunik gabe (DN15-005)**

Salatu zuten zenbait osasun datu laga zituztela ukituaren adostasunik gabe. Kasu horretan interesdunaren aitak adierazi zuen adostasuna. Salaketa artxibatu egin zen, pazientea ez zegoen arren lege zuzenaz, eta hura artatu zuen medikuak adierazi zuelako ez zeukala adostasuna adierazteko adinako gaitasunik, ahalmen fisikoak erabat urritzen zizkion gaixotasun bat zuelako.

▪ **Zenbait osasun datu lagatzea adostasunik gabe (DN15-007)**

Salatu zuten osasun datu batzuk erabili zituztela ukituaren adostasunik gabe, ikerketa mediku batean erabiltzeko. Prozeduran zehar egiaztatu zen salatzaileak adostasun informatua adierazi zuela ikerketan parte hartzeko, eta, ondorioz, salaketa artxibatu egin zen.

▪ **Hondakinak biltzeko zenbait gunetan bideo kamerak jartzea (DN15-008)**

Salatu zuten hondakinak biltzeko hainbat gunetan beste hainbeste bideo kamera jarri zituztela. Ikerketa eginbideak egin ziren, baina ez zen frogatu kamerarik zegoenik; beraz, salaketa artxibatu egin zen.



- **Ezerezteko ebazpen bat ez betetzea (DN15-013)**

Kasu honetan salatu zuten administrazio batek ez zuela bete salatzaileak baliatu nahi zuen eta administrazioak berak ebatzi zuen ezerezteko eskubidea.

Salaketa artxibatu egin zuten ikusi zelako bere garaian behar bezala ezereztu zituztela ezerezteko eskatu ziren datuak eta eskatu zen fitxategitik ezereztu zirela; baina, informazio pertsonala beste fitxategi batzuetan geratu zen, salatzaileak ez zuelako baliatu fitxategi horietatik datuak ezerezteko eskubidea.

- **Erroldako zenbait datu lagatzea adostasunik gabe (DN15-020)**

Salatu zuten ukituaren erroldako hainbat datu laga zizkiotela Lanbideri, ukituaren adostasunik gabe. Salaketa artxibatu egin zen, datu horiek lagatzeko lege gaikuntza zegoelako: TAOLen 16.3 artikulua eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 24. eta 60.1 artikulua.

4.4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoei irekitzen zaizkien prozedurak dira, uste bada datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutela. Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikulua arautzen ditu, eta bukatzeko bi modu daude: artxibatzea ala, hala badagokio, arau-haustea deklaratzeko, zuzentzeko neurriak hartzeko eskatuz.

2015ean 16 arau-hauste prozedura berri hasi ziren eta 15 prozedura ebatzi genituen. Ebatzitakoen artean 3 artxibatu egin genituen, eta gainontzekoak arau-haustea deklaratu bukatu ziren: arau-hauste oso larri bat, hamar arau-hauste larri eta bi arau-hauste arin deklaratu genituen.

2015ean gehien deklaratu zen arau-haustea datuen kalitatearen printzipioa urratzeagatik izan zen (DBLOren 4. artikulua); eta horren atzetik deklaratu ziren datu pertsonalak babesteko esparruko beste printzipio bi urratzeagatik: sekretu gorde beharra (DBLOren 10. artikulua) eta adostasunaren printzipioa (DBLOren 6. artikulua).

- **Zenbait zerga datu lagatzea hainbat gizarte komunikabideri (PI12-008)**

Herritar batek salaketa bat aurkeztu zuen DBEBn, berari buruzko zerga informazioa filtratu zutelako eta hainbat gizarte komunikabideri eman. DBEBk arau-hauste prozedura bat ireki zion foru ogasunari, uztez sekretu gorde beharra urratzeagatik. Egun berean, prozedura etetea ere ebatzi zuen, gertakari horiexengatik hasitako prozesu judizialaren ebazpen irmoa eman bitartean. Baina, instrukzio auzitegiaren autoak jarduketan behin-behineko largespena ezarri zuenean, ezin izan zelako jakin nork edo nortzuk izan ziren egileak, berriro ekin zitzaion hasitako arau-hauste prozedurari. Prozedura artxibatu egin zen, ez zegoelako froga garbirik esateko salatzailearen zerga datuen filtrazioaren jatorria.



- **Hirugarren batzuei lagatzea zehapen espedienteetako hainbat datu (PI14-016)**

Aparkaldi mugatuari buruzko araudia urratzeagatik hasitako zehapen-espedienteen izapidetze fasean, udal batek salatzailearen espediente berean sartu zuen TAOren arau-hausteengatik zehatutako beste pertsona batzuen zerrenda.

Udalari zehapena ezarri zitzaion arau-hauste larri bat egiteagatik, DBLOren 4. artikuluko datuen kalitatearen printzipioa urratzeagatik.

- **Unibertsitate bateko iragarki-oholean datu pertsonalak argitaratzea (PI15-001)**

Salatu zuten unibertsitate bateko departamentu bateko iragarki-oholean departamentuko batzorde iraunkorraren akta bat jarri zutela oso-osorik, eta iragarki-oholaren paretik irakasleak eta ikasleak pasatzen zirela etengabe.

Arau-hauste larria deklaratu zen DBLOren 10. artikuluan xedatutako sekretu gorde beharra urratzeagatik, informazio konfidentziala hirugarrentzat eskuragarri jartzeagatik.

- **Enoresa-esleipendun batek hainbat datu tratatzea, enkargua formalizatu gabe (PI15-002)**

Enpresa bati kontratu txiki bat esleitu zioten langileen asebetetze maila aztertze. Kontratua gauzatzeko, enpresa esleipendunak EAEko administrazio publiko bateko fitxategi batean zeuden datu pertsonalak tratatu behar zituen.

Arau-hauste larria deklaratu zen, enkargua egin zelako DBLOren 12. artikulua agindutakoa eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginaren hogeita seigarren xedapen gehigarriak xedatutako bete barik.

- **Zenbait datu argitaratzea (PI15-003)**

Udal euskaltegi baten iragarki-oholean informazio ohar bat jarri zuten eskolarik ez zela egongo esateko, langile batzuk bajan zeudelako gaixotasunagatik. Geroago informazio oharra euskaltegiko sarrerako atean ipini zuten.

Agentziak deklaratu zuen udalak arau-hauste larri bi egin zituela, bata, sekretu gorde beharra urratzeagatik (DBLOren 10. artikulua), eta, bestea, DBLOren 4. artikuluko datuen kalitatearen printzipioa urratzeagatik.

- **Zenbait segurtasun neurri urratzea (PI15-004)**

EAEko administrazio bati zehapen bat ezarri zitzaion arau-hauste larri bat egin zuelako, DBLOren 9. artikulua urratu baitzuen; izan ere, salatzaileari bere senide batentzako zen administrazio egintza baten jakinarazpena eman baitzioten eskura lantokian zegoela.



▪ **Telefono mugikorraren zenbakia modu bidegabean erabiltzea (PI15-005)**

Udalak salatzailearen telefono mugikorra erabili zuen telefonoa jaso zuenean zeukan helbururako ez beste baterako, salatzailearen adostasunik gabe eta halako datu tratamendua egiteko lege gaikuntzarik gabe.

Agentziak ebatzi zuen DBLOren 6. artikulua aldarrikatutako adostasunaren printzipioa urratu zutela, eta, ondorioz, arau-hauste larria deklaratu zion udalari.

▪ **Irudi bat lagatzea gizarte komunikabide bati (PI15-006)**

Hildako udal funtzionario baten argazki ofiziala zabaldu zuten egunkari batean. Argazkia udal fitxategi baten gordeta zegoen.

Arau-hauste bat hasi zen uztez DBLOren 9. artikuluan jasotako datuen segurtasunaren printzipioa urratu zutelako. Ez zegoenez froga garbirik egiaztatzeko ea argazkia udal fitxategitik atera zen ala beste iturri batetik, artxibatu egin zen hasitako arau-haustea.

▪ **Hainbat datu tratatzea, bilketa egin zenean zegoen helbururako barik beste baterako (PI15-007)**

Salatzailearen enpresako ibilgailuarekin egindako TAOren arau-hauste bat izapidetzeko espediente batean salatzailearen datu pertsonalak agertu ziren ustezko arau-hausletzat, baina jasota zegoen beste pertsona bat zela ibilgailuaren gidaria eta arau-haustea egin zuena.

Udalari zehapena ezarri zitzaion DBLOren 4. artikuluko arau-hauste larri bat egiteagatik. Hala ere, ebazpenean azpimarratu zen udalak berehala erantzun zuela, berariaz onartu zuela akatsa, zuzendu egin zuela eta administrazio jarduerak atzera eramane zituela.

▪ **Dibortzio demanda batean historia soziala lagatzea (PI15-008)**

Auzi bidezko dibortzio prozedura batean, foru aldundiko gizarte langile bat lekuko gisa deitu zuten, eta kasu honetan egindako balorazio espediente bat eman zion beste alderdiko abokatuari egoitza judizialean.

Foru aldundiari arau-hauste prozedura hasi zitzaion ukituaren adostasunaren printzipioa ustez urratzeagatik. Prozedura izapidetu zen, eta ebatzi zen artxibatzea, kasu horretan benetako babes judiziala eta defentsa eskubidea gailendu zirelako.

▪ **Hauteskunde mahaia eratzeko zozketa baten emaitza interneten argitaratzea (PI15-009)**

Udal batek hauteskunde mahaiko kideen zozketaren emaitza argitaratu zuen udalaren web orrian, izena, abizena, NANA eta helbidea jasoz.

Udalari zehapena ezarri zitzaion arau-hauste arin bat egiteagatik, DBLOren 10. artikuluko sekretu gorde beharra urratzeagatik. Hala ere, Agentziak azpimarratu zuen



portaera ez zela hain gaitzesgarria izan, udalak segituan onartu zuelako akatsa, eta segituan jarri zituelako neurriak kaltea ahalik eta txikiena izan zedin.

▪ **Datu bilketa bat egitea, fitxategia sortu gabe, eta datuak argitaratzea (PI15-010)**

Administrazio batzar batek pertsona baten datu pertsonalak tratatu zituen dagokion fitxategia sortu gabe. Gainera, administrazio batzarrak iragarki-oholean argitaratu zituen salatzailearen datuak eta zorrak zituela.

Agentziak ebatzi zuen DBLOren 20. artikulua (fitxategia sortzeko betebeharra) eta 10. artikulua (sekretu gorde beharra) urratu zirela, eta arau-hauste larri bi ezarri zituen.

▪ **Udal akta bat argitaratzea hainbat datu pertsonalekin (PI15-011)**

Udal batek ohiko bilkura bateko akta argitaratu zuen udalaren iragarki-oholean, eta bertan ikusten ziren salatzailearen eta beste hainbat lagunen datu pertsonalak, ordaindu gabeko zenbatekoak eta udaleko hauteskunde mahai bakarra osatu behar zuten pertsonen identitatea eta bakoitzaren kargua.

Udalari arau-hauste larri bat eta arau-hauste arin bat deklaratu zitzaizkion datuen kalitatearen printzipioa eta sekretu gorde beharra urratzeagatik hurrenez hurren.

▪ **Txosten pribatu bat gehitzea historia kliniko batean (PI15-012)**

Kontsulta pribatu bateko mediku txosten bat jaso zen interesdunaren adostasunik gabe Euskal Osasun Zerbitzuan pertsona horrek duen historia klinikoan.

Arau-hauste larria deklaratu zen, ukituaren adostasunik gabe bere osasun datuak tratatzeagatik.



5. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA

5.1. INFORMAZIOAREN ITURBURUA.

Datu guzti hauek Fitxategien Erregistroaren datu-basearen azterketan dute jatorria. Erregistroan DBEBn deklaraturako inskripzio guztiak daude, Erregistroa sortu zenetik gaur arte. Erregistroa 2004an sortu zen. Era berean, AEPDren Erregistroan 1994tik 2004ra arte egon diren mugimenduak ere jaso ditugu, bilakaera historikoa ikusteko.


2015ean aldatu egin genuen fitxategien jakinarazpenak kudeatzeko sistema, eta, horren ondorioz, hainbat datu eta sailkapen kategoria berrikusi ditugu. Beraz, horrek beharbada ondorioak izan ditu urteko serieetan. Halakorik gertatu bada, adierazi egin dugu.

“Agentziaren Zifrak” eranskinean oso modu xehatuan aurkeztu dugu 2015ean Datuak Babesteko Erregistroan egin dituzten fitxategien deklarazioei buruzko informazioa.

5.2. IZAPIDETUTAKO INSKRIPZIOAK. BILAKAERA HISTORIKOA

2015ean zehar 836 inskripzio eskabide izapidetu ditugu Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan. Fitxategiak sortzeko 331 eskabide (% 40), aldatzeko 310 eskabide (% 37) edo ezabatuzko 195 eskabide (% 23). 2015aren buruan Datuak Babesteko Erregistroan guztira 8.818 fitxategi aktibo zeuden (ikus “Agentziaren Zifrak” eranskineko C.1 koadroa).

Ondoko grafikoan ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko fitxategi kopuruaren bilakaera historikoa:



2004ra arte egindako inskripzioak Datuak Babesteko Espainiako Agentzian egindakoak dira. 2004az geroztik egindako inskripzioak, ordea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egin ditu. “Urteko saldoa” epigrafeak Erregistroari urtero egindako ekarpenen saldo garbia islatzen du (sortutako fitxategiak ken ezabatutako fitxategiak).



Grafikoa ikusita, hiru joera nabarmentzen dira, eta joera bakoitza aldi edo garai bati dagokio:


1. Esate baterako, hasierako aldian, hau da, 1994tik 2004ra bitartean, inskripzio gehienak Erregistroaren funtzionamenduaren lehenengo urteetan egin ziren, eta urteko hazkundera oso neurritsua izan zen.
2. 2004an DBEB eratu zen, eta harrez geroztik urtero hazkunde iraunkorra eta oso nabarmena izan da, 2013 arte.
3. 2013tik aurrera hazkundera moteldu egin zen, eta grafikoaren hazkunde-kurba berdinduz doala ikusten da.

Joera hobeto aztertzeko, azken urteotako inskripzioen bilakaera begiratzea komeni da:

Urtea	Inskripzioak			Mugim. guztira	Urteko saldoa	Fitxat. guztira	Tasak		
	Sortzea	Aldatzea	Ezabatza.				Sortzea ¹	Aldatzea ²	Hazkundera ³
2015	331	310	195	836	136	8.818	% 3,8	% 3,5	% 1,6
2014	415	284	249	948	166	8.682	% 4,8	% 3,3	% 1,9
2013	801	350	156	1.307	645	8.516	% 9,8	% 4,3	% 7,9
2012	896	652	244	1.792	652	7.871	% 11,9	% 8,6	% 8,6

Argi ikusten da, alde batetik, erregistroan inskribatutako fitxategi kopuruak gora egin duela 2012tik 2015era bitartean; baina, beste alde batetik, urteko mugimendu kopurua eta saldo garbiak behera egin duela lau urte horietan.

Zifra horiek kontuan hartu eta ateratzen diren tasen bilakaera (ikusi xehetasunak “Agentziaren Zifrak” eranskinean) ikusita DBEB eratu zen urtetik, hau da, 2004az geroztik, beheranzko joera berretsi baino ezin da egin.



¹ Sortze tasa: alden batez bestekoa (sortutako fitxategiak) kontuan hartutako epealdiko (urtea) fitxategi aktiboekin alderatuta.

² Aldatze tasa: aldatutako fitxategien batez bestekoa kontuan hartutako epealdi hasierako (urtea) fitxategi aktiboekin kopuruarekin alderatuta.

³ Hazkunde tasa: fitxategien batez besteko garbia (sortutakoak ken ezabatutakoak) kontuan hartutako epealdi hasierako (urtea) fitxategi aktiboekin kopuruarekin alderatuta.




Fitxategien sortze tasak behera egin du urtez urte: hasieran % 30ekoa zen eta % 5ekoa baino tasa txikiagoa izatera heldu arte. Datu horrek adierazten duena da fitxategien arduradunak diren organismoen egoera "egonkorra" dela gaur egun, gehienek erregularizatu dituztelako ia fitxategi guztiak, eta fitxategi berriak sortzeko premia ere jaitsi egin delako.

Eta hori hala dela erakusten du hazkunde tasak. Hazkunde tasak fitxategiak ezabatzea ere hartzen du kontuan, eta egonkortzeko joera erakusten du: % 5.0 baino txikiagoa baita. Termino demografikoekin alderatuko bagenu, "hazkunde begetatiboa" duela esango genuke.


Aldatze tasari dagokionez ere, beheranzko joera egon da urteetan zehar. Edozelan ere, aldatze tasa beti egon da hazkunde tasaren azpitik, azken bi urteetan izan ezik, goitik egon delako. Pentsatzekoa da aldatze tasa izango dela aurrerantzean erregistroaren jardueraren daturik adierazgarriena.

Begiratzen badugu zenbat deklarazio egin zituzten hil bakoitzean 2015ean, ateratzen da hilero batez beste 70 deklarazio izapidetu zirela. Eta ikusten da batez bestekoa baino deklarazio gehiago egin direla uztailean eta irailean: 170 baino gehiago. Urtarrilean eta abuztuan kontrakoa gertatu zen, deklarazio gutxi egin zirelako (ikusi C.3 koadroa).



5.3. ERAKUNDE DEKLARATZAILEAK

Erakunde deklaratzaleei buruz esan behar dugu 2015ean erregistroari mugimendu gehien jakinarazi dizkioten erakundeak Eusko Jaurlaritza (eta bere menpeko erakundeak) izan direla. Guztira 432 mugimendu egin dituzte (% 52). Atzetik datoz tokiko administrazioak (udalak eta horiei atxikitako edo menpeko erakundeak). Azken horiek 353 (% 42) mugimendu jakinarazi dituzte (ikusi C.4 koadroa).




DBEBren Datuak Babesteko Erregistroan 2015eko bukaeran jasota zeuden fitxategien arduradunak 1.234 organismotakoak ziren (ikusi C.6 koadroa).


Horien izaera juridikoari erreparatzen badiogu, gehienak (1.121, % 91) "Administrazio organoak" dira, % 4 "Zuzenbide pribatuko erakundeak" dira (56) eta % 4 "Korporazio publikoak" (49).



Fitxategi bakoitzaren deklarazioan zehatz agertzen da jasota zein den fitxategiaren arduraduna (administrazio organo zehatza jasoz), baina ustez egokiagoa da horiek multzokatzea, erakunde deklaratzailer nagusia kontuan hartuta, hau da, barruko egitura organiko zehatza zein den alde batera utzita. Beraz, erakundeak sailkatzeko, IFZ hartu da kontuan, desberdina dutelako, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, kasu horretan sail bakoitza organo deklaratzailer nagusitzat jotzen delako.




449 erakunde deklaratzailer nagusi daude (ikusi C.8 koadroa). 2014ko datuekin alderatuta, 5 erakunde deklaratzailer nagusi gutxiago daude. Erakunde deklaratzailer nagusien kopurua jaitsi egin da, hainbat erakundetan egitura organikoak aldatu dituztelako eta izendapenak murriztu.



Toki administrazioa baino ez badugu aztertzen (ikusi C.9 koadroa), 322 Erakunde Nagusi daude. Kopuru hori udalen kopurua baino handiagoa da (251). Eta hori gertatu da udalerri batzuetan erakunde autonomiadunak eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuk daudelako.

5.4. INSKRIBATUTAKO FITXATEGI AKTIBOAK

2015ean 8.818 fitxategi aktibo daude Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan. Hurrengo grafikoan ikus daiteke bakoitzaren “antzinakotasuna” edo fitxategi horien banaketa denboran zehar, hau da, fitxategi bakoitza zein urtetan deklaratu zen ikus daiteke grafikoan:





5.5. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKETA, ERAKUNDEEN ARABERA

Inskribatuta dauden 8.818 fitxategietatik gehienak tokiko administrazioenak dira: guztira 6.696 fitxategi. 2014an zehar ere udalak izan dira, balio absolutuen arabera, mugimendu gehien egin dituztenak, 103 fitxategi gehiagoko saldo garbiarekin. Horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta, % 1,6 igo dela kopurua (ikusi C.10 koadroa).

Aipatzekoa da foru administrazioak deklaraturako fitxategi kopuruak izan duela batez besteko igoera handiena (% 2,9); 408 ziren eta orain 420 dira inskribatutako fitxategiak guztira (ikusi xehetasuna C.13 koadroan).


Gainontzeko administrazioen fitxategi kopuruak batez beste % 2,5 egin du gora.

5.6. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN SEGURTASUN MAILAK

Jakin nahi bada zein den zenbait organismok datu babesari eskaintzen dioten dedikazioa, kontuan hartu beharreko adierazle bat da inskribatutako zenbat fitxategik ez duten esleituta segurtasun maila (ikusi C.19 koadroa).

2015aren bukaeran 277 fitxategi zeuden segurtasun maila deklaratu gabe. Era horretako fitxategien kopurua % 8,6 gutxitu da 2014ko kopuruarekin alderatuta (26 fitxategi gutxiago). 277 fitxategi horietatik 268 udaletako fitxategiak dira, eta gainontzeko 9ak foru aldundietako organismoetakoak.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke zein den inskribatuta dauden fitxategien segurtasun maila eta noiz inskribatu zen lehen aldiz fitxategia.






Ikusten da segurtasun mailarik ez duten fitxategiak 1994 eta 1997 urteetan sortu ziren fitxategien multzo batekoak direla. Sortu zirenetik ez dute aldaketarik izan.

5.7. WEB ORRIAREN ERABILERAREN ESTATISTIKAK


2011az geroztik “Google Analytics” sistema erabiltzen ari gara web orriaren erabilera neurtzeko. 2011n eta 2012an aurretik geneukan sistemarekin batera erabili genuen. Aurrekoa zerbitzarien trafiko datuetan oinarritzen zen. Baina 2013az geroztik, Google Analytics” sistemaren metrikak erabili ditugu bakarrik.

Lehenengo grafikoan ikusten da zenbat bisita izan zituen web orriak hilean, eta erabiltzaileek web gunera heltzeko zenbat banakako saio egin zituzten adierazten du. Azken hiru urteetako datuak daude.



Ikus daiteke batez beste 4.000 bisita dituela hilean DBEBren web orriak, eta kopurua jaitsi egiten dela udan. 2012ko urrian igoera nabarmen bat antzematen da, eta horren arrazoa da sare sozialei buruzko bideo batzuk argitaratu zirela.

Bigarren grafikoak erakusten du zenbat orri ikusi zituzten hilean, eta adierazten du web guneko orriak zenbat aldiz aurkeztu diren edo deskargatu diren. Bata bestearen gainean jarritako grafiko baten bidez islatu dugu informazio hori. Grafikoan oso argi ikus daiteke hilez hileko joera, eta urtez urte izandako bilakaerak alderatu daitezke horrela.





6. PRIVATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA

6.1. DATU BABESAREN EUROPAKO EGUNA (2015EKO URTARRILAREN 28A)

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bat egiten zuen egunarekin bi azterlan berri aurkeztuz:

Datu pertsonalen babesa / La protección de los datos personales (enero 2015ko urtarrila). Prospekzio Soziologikoen Kabinetea eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, 2015. (Paperezko edizioa eta digitala).

Datu babesaren eta gardentasunaren gainean herritarrek duten pertzepzioari buruzko azterketa kualitatiboa. Informe de resultados (28 de noviembre de 2014) / Datu babesaren eta gardentasunaren gainean herritarrek duten pertzepzioari buruzko azterketa kualitatiboa (2014ko azaroaren 28a). Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, 2015 (Edizio digitala)

6.2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAN KOMUNIKABIDEETAN ETA INTERNETEN

6.2.1. Prentsa idatzia

Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/01/20	DBEBk Espainiako, Kataluniako eta Euskadiko datuak babesteko agentzien arteko topaketa batekin amaituko ditu 10. urteurreneko ekitaldiak - Noticiaspress.es	Noticias Press
2015/01/23	Datuak Babesteko Agentziak dio esparru publikoko segurtasun neurriak proportzionalak izan behar dutela	El Correo
2015/01/23	Datuak Babesteko Agentziak dio esparru publikoko segurtasun neurriak proportzionalak izan behar dutela	ABC
2015/01/24	Datu babesaren arloko adituek eskatu dute ez erabiltzeko segurtasuna aitzakia moduan datuen babesaren aurka	Diario Vasco
2015/01/28	Euskal herritar gehienak ez dira fidatzen datu babesaz Whatsapp erabiltzen dutenean	Diario Vasco
2015/02/02	"Datu babesak ez du kolore politikorik" [DBEBren zuzendariari egindako elkarrizketa]	El País
2015/02/04	Iñaki Pariente: "Interneteko hainbat enpresak hobeto ezagutzen gaituzte gu, guk gure burua baino"	Diario Vasco



Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/04/17	Lakuak debekatu egin du kamerak jartzea “atez atekoa” kontrolatzeko	Noticias de Gipuzkoa
2015/04/17	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erabakiaren zain	Diario Vasco
2015/04/17	Kamerei buruzko kontsulta Datuak Babesteko Euskal Bulegoari	Diario Vasco
2015/04/17	Segurtasun Sailak ezetsi egin du Hernanik egindako eskabidea hondakinak biltzeko gune batean bideo zaintza kamerak jartzeko	Diario Vasco
2015/04/23	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bidokameraren gainean galdetu dio Hernaniko Udalari	Diario Vasco
2015/04/29	DBEBk adierazi du generikoen errezetek pribatutasuna errespetatzen dutela	El Correo
2015/05/06	DBEBk adierazi du generikoen errezetek pribatutasuna errespetatzen dutela	Diario Vasco
2015/05/22	Herritarren erantzunak atez atekoa gelditu du	Diario Vasco
2015/05/26	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari	Interempresas.net
2015/06/08	Biscaytik Fundazioak “UdaTIK” informatika udalekuen bigarren edizioa antolatu du	Deia
2015/06/15	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du Funtzio Publikoak arau-hauste larria egin zuela “datu pertsonalak emateagatik”	El Economista
2015/07/02	Lakuak ukatu egin dizkio Legebiltzarrari Gasteizen zauritutako ertzainen mediku parteak	Gara
2015/07/09	Euskal herritarrek pribatutasun eskubideari buruzko 3 kontsulta egiten dituzte egunean	El Correo
2015/07/12	Legebiltzarreko Mahaiak Lakuaren ezespena berretsi du, eta EH Bilduk Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo du	Gara
2015/07/20	Biderkatu eta betikotu egiten den kaltea	Diario Vasco
2015/07/20	Seme-alaben mezuak zelatatzea delitua da	Diario Vasco
2015/07/20	Seme-alaben mezuak zelatatzea delitua da: urte bat eta lau urte bitarteko kartzela	El Correo



Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/07/20	Seme-alaben mezuak zelatatzea delitua da	El Comercio
2015/08/09	«Egungo araudiarekin, ezin dira iruzurgileen datuak jakinarazi» Iñaki Pariente de Prada, Datuak Babesteko EAEko Bulegoa.	Berria
2015/10/06	PSE pozik agertu da Hernaniko bideo zaintza kamera kendu dutelako	Diario Vasco
2015/10/07	PSE-EEK atez atekoari buruzko galdeketa egiteko eskatu dio alkateari	Diario Vasco
2015/10/07	Hernanik ez du baimenik garbiguneetako kameretarako	Noticias de Gipuzkoa
2015/10/09	Udalak adierazi du baimena lortuz gero ipiniko dituela kamerak	Diario Vasco
2015/10/09	“Ez dugu kamerarik ipiniko, baimena lortzen ez badugu”	Noticias de Gipuzkoa
2015/10/16	“Agentziaren txostenak zioen kamerak zeudela”	Diario Vasco
2015/10/19	Eusko Jaurlaritzak ez dio goi-kargudunen bidaiei buruzko informaziorik eman nahi Legebiltzarrari	El Correo
2015/10/20	Hezkuntza Sailak ez du eman nahi Lehen Hezkuntzako ebaluazioa egin zuten ikastetxeen izena	El diario.es
2015/11/06	Hainbat adituk datu pertsonalen babesa sustatu nahi dute latinoamerikan, Iñaki Parienteren parte hartzea aipatuz Montevideon egindako topaketa batean	Sputnik Mundo
2015/11/16	Euskal autonomia erkidegoko ogasunek zordun handiak erakutsiko ditu	Eldiario.es
2015/11/26	Internet bidezko tratatu txarrei buruzko erizaintzako gida	Diario Vasco
2015/12/03	Biscaytik Fundazioak udal ordezkari eta aditu ugari bildu ditu tokiko administrazioen esparruko datu babesari buruzko jardunaldi batean - Datu babesa - Berriak, azken ordua, bideoak era argazkiak hemen: lainformacion.com	La información
2015/12/03	Epaille batek berretsi egin du Dbus-eko kamera sistemak urratu egiten duela Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legea	Diario Vasco
2015/12/04	Txosten batek dio “Big data” delakoak emaitzak hobetuko dituela osasunaren esparruan	Infosalus



Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/12/19	Hasi erloju adimentsuarekin eta segi Barbie Hello-rekin: pribatutasunaren erronka [Montevideon, Centro de Formación de la Cooperación Española delakoan egin zen "Pribatutasunaren arloko erronka berriak. Datu pertsonalen tratamendu masiboa" izeneko Mintegian izandako parte hartzeari buruzko txostena]	180.com (CIEN18CHENTA)

6.2.2. Irratia eta telebista

Data	Deskribapena	Komunikabidea
01/01/2015 - 31/12/2015	Astearteroko elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri	COPE
2015/01/12	<i>Sin ir más lejos</i> saioa: elkarrizketa, DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri	ETB2
2015/01/13	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Shengeneko hitzarmenari buruz, Parisko gertakariak direla-eta	COPE
2015/01/15	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Shengeneko tratatuari buruz eta ea tratatua aldatuko ote duten, Parisko gertakarien ondorioz	ETB2
2015/01/15	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Shengeneko tratatuari eta aldaketei buruz, Parisko gertaeren ondorioz	Onda Cero
2015/01/15	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Shengeneko tratatua aldatzeari buruz, Parisko gertaeren ondorioz	Radio Vitoria
2015/01/19	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, "Frantziako atentatuei buruz, Shengeneko tratatuari buruz eta ostiraleko Bilboko jardunaldiari buruz"	Radio Vitoria
2015/01/19	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Parisko atentatuei buruz	Radio Vitoria
2015/01/21	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren 10. urteurrena	Onda Cero
2015/01/22	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri eta APDCATen zuzendari Angèls Barberàri, datuak babesteko agentzien jardunaldiari buruz	Onda Vasca
2015/01/23	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, datuak babesteko agentzien Bilboko jardunaldiari buruz	Radio Nacional
2015/01/23	Datu pertsonalen tratamendua administrazioan eta enpresetan	Radio Euskadi
2015/01/26	Datu pertsonalen tratamendua administrazioan eta enpresetan	Radio Euskadi



Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/01/27	Iñaki Pariente Datu Babesaren Nazioarteko Egunaren bezperan [Elkarrizketa <i>Gipuzkoa en la onda</i> saioan]	Onda Cero
2015/01/27	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri	Radio Euskadi
2015/01/28	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Datu Babesaren Egunari buruz	Cadena Ser
2015/01/28	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Datu Babesaren Nazioarteko Egunari buruz	VTVGasteiz
2015/01/28	Bideoa: Internetekiko konfiantza eta datu babesarekiko kezka handituz doaz [Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri]	ETB2
2015/01/29	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Datu Babesaren Egunari buruz	Radio Euskadi
2015/02/18	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Internet Seguruaren Egunari buruz	COPE
2015/03/14	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Gipuzkoa Encounter-i buruz	Cadena Ser
2015/04/24	Bideoa: Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, “SIML” hoteleko bezeroen kontrolari buruz	ETB2
2015/05/14	Erreportaje bat DBEBn, Googleri buruzko epaiketako ahaztua izateko eskubidearen urteurrena dela-eta	ETB2
2015/05/14	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, ahaztua izateko eskubideari buruz, Googleri buruzko epaiketaren urteurrena dela-eta	Onda Vasca
2015/05/28	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, honako epaiari buruz: Urte beteko kartzela zigorra eta 1.080 euroko isuna ezarri diote emakume bati bere bikotekidearen mugikorra zelatatzeagatik	ETB2
2015/06/14	Enpresek gure datu pribatuak nola erabiltzen dituzten azaltzen duen bideoa: Enpresek behar bezala erabiltzen dituzte gure datuak?	ETB2
2015/06/14	Bideoa: gure datu pribatuen babesa: Gure datu pribatuak egoki erabiltzen ote dituzte enpresek?	ETB1
2015/06/29	Zein datu dira konfidentzialak? Nola babesten dira? Nola ezabatzen dira?	Radio Euskadi
2015/07/06	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, 2014ko Memoriari buruz	RNE



Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/07/14	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri Seme-alaben mugikorra zelatatzea delitua da eta ia lau urte arteko kartzela zigorra dakar (<i>Sin ir más lejos</i> saioa)	ETB2
2015/07/15	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri	Onda Vasca
2015/07/22	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri	ETB2
2015/09/08	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, bideo-zaintza kamerei buruz	Cadena Ser
2015/10/01	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Bilboko Begoñako basilikako bideo-zaintza kamerei buruz	ETB2
2015/11/12	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Getxoko aldageletako kamerei buruz	Cadena Ser
2015/11/12	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Getxoko aldageletako kamerei buruz [<i>Ganbara</i> saioa]	Radio Euskadi
2015/11/13	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, “Kiroldegietako aldageletako kamera ezkutuei buruz”	Onda Cero
2015/11/17	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, “Nola irten sare sozialetatik” gaiari buruz (<i>Boulevard</i> saioa)	Radio Euskadi
2015/11/23	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri “Segurtasunaren eta pribatutasunaren arteko orekari buruz” (<i>Araba Gaur</i> saioa)	Radio Vitoria
2015/12/29	Elkarrizketa DBEBren zuzendari Iñaki Parienteri, Sergi Guardiola futbol jokalaria argitaratu zuen <i>txio</i> bati buruz	Radio Euskadi

6.2.3. Artikuluak eta aipamenak aldizkari akademikoetan

Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/07/03	Gobernuak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Kontseilu Aholku-emaileko kideak izendatu ditu	Diario de noticias La Ley
201507-31	Datu Pertsonalak Babesteko Sarien III. Edizioa	Iustel

6.2.4. Blogak eta web orriak

Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/01/11	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Datu Pertsonalak Babesteko III. Sarien banaketa	Pribatua bloga



Data	Deskribapena	Komunikabidea
2015/01/12	Urtarrilaren 23ko agentzien jardunaldia: “Teknologia, pribatutasuna eta administrazioek eta enpresek egiten dituzten datu tratamenduak”	Pribatua bloga
2015/01/23	DBEBk AEPD antolatutako jardunaldi batean hartu du parte, datuak babesteko agintaritza guztiekin batera	AEPDren weba
2015/01/28	Datu babesa, gardentasuna eta informazioaren atzipenari buruzko irizpenak	Eudel
2015/02/11	Urtarrilaren 23ko agentzien jardunaldia: “Teknologia, pribatutasuna eta administrazioek eta enpresek egiten dituzten datu tratamenduak”	Youtube
2015/05/19	EHU-DBEB JARDUNALDIA: Ahaztua izateko eskubidea Googleren epaiaren ostean: “eskubide berria”?	Pribatua
2015/11/13	Osasun digitalak geldialdi bat egin du Bilboko lehenengo eHealth topaketan [Aipatu da DBEBren zuzendari Iñaki Parienteren parte hartzea Bilbon, eHealth 2015 Jardunaldian]	IM Farmacias
2015/11/19	Armadura juridiko sendoa Big Dataren eta datu babesaren gaineko proiektuetan	Deusto Big Data bloga
2015/12/09	Big Datari eta Osasunari buruzko txosten batek azpimarratu du zein garrantzitsuak diren pazienteak artatzeko eta OSNerako	Acta Sanitaria
2015/12/24	VI. Pribatuaren Jardunaldia (IV) - El control de los recursos tecnológicos / Baliabide teknologikoen kontrola”	Pribatua



7. EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

7.1. DATU BABESARI BURUZKO NAZIOARTEKO ZENBAIT FOROTAN PARTE HARTZEA

- ***Datuak Babesteko XIII. Iberoamerikako Topaketa (2015-05-06 / 2015-05-08. Lima (Peru)***

2015eko edizioa Peruko Datu Pertsonalak Babesteko Agintaritza Nazionalak (APDP) antolatu zuen. Topaketan hainbat gai landu ziren, adibidez, honakoak: “adingabeen pribatutasuna babestea”, “osasunari buruzko informazioa”, “pribatutasuna laneko ingurunean”, “Peruko zigor arloko legedia” eta “Estatuaren esku dagoen informazioa eskuratzea”.

DBEBren zuzendariak bigarren saioa gidatu zuen. Saioaren izenburua: “Osasunari buruzko datuen babesak. Sentsibiltate handia”.

- ***Jardunaldiak El Salvadorren (2015-06-22 / 2016-06-25)***

El Salvadorreko Gardentasunaren Institutuari eta hainbat ministeriotako funtzionarioei zuzendutako jardunaldia izan zen, Europan datu babesak izandako azken garapenen berri emateko.

- ***Datu Pertsonalak Babesteko Nazioarteko Foroa (2015-09-03 / 2015-09-04. Monterrey-Mexico)***

2015eko edizioa osasunaren arloko datuen babesari buruzko izan zen, eta Nueva Leóngo Unibertsitate Autonomoak eta Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordeak antolatu zuten. DBEBk honako saioetan hartu zuen parte: “Osasun arloan datu pertsonalen tratamenduek sortzen dituzten arazo eta ondorio handienak” eta “Historia kliniko elektronikoari buruzko arazoak eta konponbideak. Zenbait kasu praktiko”.

- ***“Pribatutasunaren arloko erronka berriak. Datu pertsonalen tratamendu masiboa” Mintegia (2015-11-03 / 2015-11-05. Montevideo-Uruguay).***

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak antolatu zuen Montevideoko Prestakuntza Zentroan, eta mintegiaren helburua izan zen Iberoamerikako datu pertsonalak babesteko agintaritzen arteko eta han aztertu zituzten gaien esparruko adituen arteko trukeak sustatzea. Era berean, datuen tratamendu masiboari buruzko eta teknologiek adingabeengan izan ditzaketen ondorioei buruzko irizpideak finkatzeko helburua zuen.



7.2. HITZALDIETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTZEA

- ***Erregistroaren buruak master bateko ikasleei emandako Segurtasunari eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Jardunaldia. (2015-01-12. Vitoria-Gasteiz)***

Euskal herriko Unibertsitateko Telekomunikazio Ingeniarien Goi-Eskola Teknikoak (ETSIT) antolatu zuen.

- ***Datuak Babesteko Agentzien Jardunaldiak (2015-01-22 / 2015-01-23. (Bilbao)***

Jardunaldia DBEBk antolatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan izan zen eta honako izenburua izan zuen: *“Teknologia, pribatutasuna eta administrazioek eta enpresek egiten dituzten datu tratamenduak”*. Bi saio izan ziren denetara; bata, barrukoa, datuak babesteko agintaritzentzat; eta, bestea, irekia, edonorentzat.

Saio irekian hiru mahai-inguru egin ziren, eta datuak babesteko hiru zuzendarietako bakoitzak mahai-inguru bat gidatu zuen (DBEB, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia eta Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak).

- ***Medikuntzan Datu babesari buruzko hitzaldia (2015-02-03. Donostia-San Sebastián)***

DBEBren zuzendariak medikuntzaren arloan datu babesari buruzko hitzaldi bat eman zuen Gipuzkoako Medikuen Elkargo Ofizialean, eta hainbat adibide eman zituen medikuei eta datu babesa betetzeari buruz; eta egoera praktikoen aurrean sortzen diren zalantzen inguruko argibideak ere eman zituen.

- ***Pribatutasuna eta Datu babesari buruzko hitzaldia (2015-02-09. Eibar)***

DBEBren zuzendariak pribatutasunari eta datu babesari buruzko hitzaldi bat eman zien Armagintza Eskolako irakasleei eta administrazioko langileei.

- ***Pribatutasuna eta Datu babesari buruzko hitzaldia (2015-02-10. Donostia-San Sebastián)***

DBEBren zuzendariak datu babesari buruzko hitzaldi bat eman zuen Institutu Politeknikoan.

- ***Osasunaren Informatikako Nazioarteko XVIII. Biltzarra (INFORSALUD) (2015-02-16 / 2015-02-18. Madril)***

Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarteak (SEIS) urtero antolatzen du osasunaren arloko informatikari buruzko biltzarra. 2015eko edizioaren leloa *M-Health-*



Errealitatea ala etorkizuna” izan zen, eta DBEBren zuzendariak “Mugikortasuna eta Segurtasuna” izeneko laugarren mahai-inguruan hartu zuen parte.

- ***Hezkuntzan Datu Babesari buruzko Jardunaldia: II Jornada Regional Conectado y Seguro (sobre el uso de las redes sociales en la educación) (2015-02-26. Mérida-Badajoz)***

Zuzendariak honako mahai-inguruan hartu zuen parte: “*Jolasa erabiltzea prestakuntza eta prebentziorako. Animazioak eta prestakuntza jokoak (serious games)*”

- ***Datu babesari buruzko hitzaldia (2015-03-16. Donostia-San Sebastián)***

Zuzendariak pribatutasunari buruzko hitzaldi bat eman zuen Donostiako Institutu Politeknikoan.

- ***Segurtasuneko eta Osasuneko Datuen Babesari buruzko XII. Foroa (2015-03-24 / 2015-03-25. Zaragoza)***

Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarteak (SEIS) urtero antolatzen du biltzar hau, osasunaren esparruko profesionalek, datuak babesteko agintaritzek eta esparru teknologikoek elkartzeko gune bat izan dezaten, eta osasun arretan teknologiak modu seguruan erabiltzen laguntzeko. DBEB programa-batzordeko kide laguntzaileetako bat da.

2015eko foroaren izenburua honakoa izan zen: “*Osasun arloko Big Dataren bizi zikloa: Gauzen Internetetik hasi eta diseinutik abiatutako datu babesera arte*”. Datuen tratamendu masiboa aztertu zuten eta osasuneko lehen arretan duen eragina.

DBEBren zuzendariak eta Lege-aholkularitzako eta Erregistroko buruek hartu zuten parte. DBEBren zuzendari Iñaki Parientek gidatu zuen mahai-ingurua, izenburu honekin: “*Big Dataren iturriak. Gauzen Internet*”. Eta Erregistroaren buruak, Pedro Alberto Gonzálezek “*Hainbat kasu praktiko: datu babesaren agintaritzen esperientzia*” izenburuko mahai-inguruaren moderatzaile izan zen. Lege-aholkularitzaren burua, Ana Aperribaik ere parte hartu zuen mahai horretan.

- ***Datu babesa eta adingabeei buruzko jardunaldia: hainbat alderdi garrantzitsu administrazio publikoak kontuan hartzeko, teknologiaren eta adingabeen arteko harremanaren kudeaketan (2015-04-17. Madril)***

Jardunaldia Madrilgo Erkidegoko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak antolatu zuen 2014an hasitako administrazio publikoari eta datu pertsonalak babesteari buruzko



jardunaldien ziklo baten baitan. DBEBren zuzendaria jardunaldian egon zen, Foro Abierto delako egitarauan. Zuzendariaren hitzaldiaren izenburua honakoa izan zen: *“Sare sozialak eta teknologiarekin zer ikusia duten beste harreman modu batzuk: sarearen erabilera egokiak eta desegokiak”*

▪ ***“Ahazteko eskubidea Googleren gainera epaiaren ostean” jardunaldia (2015-05-26. Bilbao)***

DBEBk antolatu zuen UPV-EHUren lankidetzarekin. Ahazteko eskubideari buruzko jardunaldi ireki bat izan zen. Esan behar da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiaren ondotik gaurkotasun handia duen gaia dela. Unai Aberasturi jaunak, UPV/EHUko Administrazio Zuzenbideko irakasleak eta Pere Simon jaunak, Universitat de Gironako irakasleak solasaldi bat izan zuten bertaratu zirenekin, eskubide horren egungo egoerari eta etorkizuneko ikuspegiari buruz.

▪ ***Zuzenbidearen eta Osasunaren XXIV. Biltzarra (2015-06-11 / 2015-06-12)***

Agentziak honako komunikazioarekin hartu zuen parte biltzarrean: *“Big Data. Osasun datuen pilaketa masiboa, lankidetzaren publiko-pribatua eta arriskuan dauden eskubideak sozietate digitalaren esparruan”*.

▪ ***Publizitateari buruzko masterra: Big Data eta pribatutasuna (2015-06-18 / 2015-06-19. Madril)***

DBEBren zuzendariak honako mahai-inguruan hartu zuen parte: *“Big Data, cookieak eta horien erabilera publizitatearen esparruan: pribatutasunari buruzko hainbat alderdi”*. Big Datari eta pribatutasunari zuzendutako jardunaldia. Comillaseko Universidad Pontificia unibertsitatearen publizitateari buruzko masterra.

▪ ***UDATIK informatika udalekua, jolastuz programatzen ikasi! (2015-07-06 / 2015-07-17. Getxo (Bizkaia))***

DBEBren zuzendariak hilaren 7an hartu zuen parte 9 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendutako udalekuen bigarren edizioan.

▪ ***Osasun arloko IKTen Gobernantzarako Foroaren V. Batzarra (2015-09-29 / 2015-09-30. Bilbao)***

